Katedrak, era berean, garapen iraunkorrerako zientzi lankidetza eta emaitzen transferentzia sustatu nahi du, katedren sarea eta biosferaren erreserben munduko sarea tarte eta bitarte direla, sare biak Unescorenak, bai eta UPV/EHUk berak eta bere ikertzaileek darabiltzaten sareen bidez ere.

V.– Ezen, aipaturiko helburuokin bat eginik, UPV/EHUk, Garapen Iraunkor eta Ingurumen-Hezkuntzarako Unesco katedraren bidez, Urdaibaiko biosferaren erreserban eta Euskal Herriko autonomi erkidegoan diren natur baliabideen gestio iraunkorraren azterketa helburu duen ildoa bultzatu duela, aurreikusitako jarduerak bitarte, interes publikoa, bai UPV/EHUrena nola Euskal Gobernuarena, bateratuko dituzten ekintzak dituena.

Hortaz, Unesco katedrak Mintegi zientifiko eta teknikoak antolatuko ditu, Urdaibaiko biosferaren erreserbaren 2011.eko erabilera eta gestio-plan gidaria (EGPG) aldatzeko proposamen gisa balioko dutenak, 2011. urtean ehun mila eurotako bataz besteko aurrekontuaz gauzatuko direnak.

VI.– Ezen Euskal Gobernuaren Ingurumen, Lurralde-Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako sailak, Ingurumenerako sailburuordetzaren bidez, lehentasunezko eginkizun nagusienetakoa duela bai Urdaibaiko biosferaren erreserba kudeatu eta babestea, ikerkuntza sustatuz eta azterketa aplikatuak eginez; eta interesatuta dagoela UPV/EHUren Unesco katedrarekiko lankidetzan aipatutako ekintza eta jarduerak gauza daitezen eta, gainera, ekintza hau interes zuzenekoa dela, Urdaibaiko biosferaren erreserbarako erabilera eta gestio-plana (EGPG), aurreikusi bezala, egin ahal izateko.

VII.– Ezen alde biak bat datozela Urdaibaiko biosferaren erreserbarako erabilera eta gestio-plan gidaria (EGPG) aldatzeko balioko duten ekintzak egiteko beharrean eta, oinarri gisa, biosferaren erreserbaren kontzeptua hartuta, garapen iraunkorra erakusteko eta irakasteko toki bihurtu behar direla baitio. Helburu hauek erdiestearren, zientzi, administrazio eta BEtako pertsonalaren arteko lankidetza eta komunikazioa sustatu behar da. Ildo honetatik, ikerkuntza problemen ebaztean xedatzea oso euskarri inportantea da gestio eta erabakien hartzeko pertsona arduradunentzat eta lagundu egiten du lurraldearen egokitzapen-gestioa indartzeko.

Honetara, EGPG berritzeko behar diren oinarri zientifiko teknikoak garatu nahi dira. Aldez aurretiko zenbait txosten egingo da, EGPGren barruko gai gakoen arloetako adituen esku jarrita, lan-mintegietan eztabaidatuko direlarik. Mintegiak amaiturik, dokumentu bat egingo da lan-jardunaldietan zehar egindako ekarpenen ondorioz, I. eranskinean ezarritakoarekin bat etorrita.

Beraz, maila zientifiko teknikoan egindako azterketak eta eztabaidak bidea emango dute legeak aurreikusten dituen helburuei buruzko diagnosia eskuratzeko, Urdaibaiko biosferaren erreserbarako erabilera eta gestio-plan gidaria (EGPG) eraldatuko bada.

Proposamen hau Unescoren bi programen helburuen babesean kokatzen da; batetik, natur zientzien sektorearen MAB programa eta hezkuntza-zientzien sektorearen UNITWIN eta Unesco katedren programa; eta egokiro tartekatzen da Euskal Gobernuak EGPGren aldaketa burutzeko duen eginbeharrarekin.

VIII.– Ezen, elkarrekin egin beharreko ekintzak burutzeko eta giza baliabideak eta bitarteko materialak arrazionalizatzeko, erakunde biak ados daudela UPV/EHU eta Euskal Herriko administrazio orokorraren arteko lankidetza-programari ekin beharraz eta, honetarako, honako komenio hau sinatzea adostu dutela, azaroaren 26ko 30/1992 legearen 6. artikuluan ezarritakoa oinarri izan eta ondoko klausula hauen arabera arautuko dena.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Helburua.

Komenio honen helburua da Euskal Herriko administrazio orokorraren eta UPV/EHUren arteko lankidetza artikulatzea da, lehenengoa Ingurumen, Lurralde-Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako sailaren bidez eta, bigarrena, bere Unesco katedraren bidez, honakoak xede jarrita: Ponentzia eta ondorio zientifiko teknikoak egitea 2011. urtean, Urdaibaiko biosferaren erreserbarako erabilera eta gestio-plan gidariaren berrikusketa egiteko.

Bigarrena.– Euskal Herriko administrazio orokorraren konpromisoak.

Euskal Herriko administrazio orokorrak, Ingurumen, Lurralde-Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako sailaren bidez, honako konpromiso hauek ditu:

a) UPV/EHUri behar besteko informazio guztia emanen dio komeniatutako jarduerak gauzatu ahal izateko.

b) Garatuko diren lanak aurrera eramateko egitarauen diseinuan lagunduko du eta ponenzietan parte hartuko du; baita ere, haiek koordinatu eta gainbegiratuko ditu.

c) Ekintza hauek finantzatzen lagunduko du.

Hirugarrena.– UPV/EHUren konpromisoak.

1.– UPV/EHUk, Unesco katedra bitarte delarik, bere gain hartuko du komenio honen lehenengo klausulan zehaztutako lanak egitea eta konpromisoa hartzen du, komenio honen babesean, Euskal Gobernuaren Ingurumen, Lurralde-Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako saileko Ingurumenerako sailburuordetzako Biodibertsitate eta Ingurumen-Partaidetzarako zuzendaritzarekiko lankidetzaz, komenio honen I eranskinean, zehazten diren ekintzak burutzeko.

Ponentzia eta ondorio zientifiko teknikoak egingo ditu 2011. urtean, Urdaibaiko biosferaren erreserbarako erabilera eta gestio-plan gidariaren berrikusketa egiteko; PGEG aldatu aurretik, zientzia eta teknika-mailako azterketa eta eztabaidari ekin beharra dago, Urdaibaiko biosferaren erreserba babestu eta antolatzeko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak aurreikusten dituen helburuen inguruko diagnosia eskuratzearren, EGPG berrikusi eta geroko idazketaren oinarri eta funts izan dadin.

2.– Ekintzak amaitu eta gero, UPV/EHUk oroitidazki ekonomiko eta justifikagarriak igorriko ditu, lehendabizi behin-behinekoak, ekintzak amaitu eta hilabetearen epean eta, bigarrena, bi hilabeteren epean, ekintzaren emaitza osoak jasoz.

Laugarrena.– Jardueren finantzaketa eta ordainketak egiteko modua.

1.– Euskal Herriko administrazio orokorrak honako era honetara finantzatuko ditu jarduera hauek: EGPGren berrikusketarako ponentzia eta ondorio zientifiko teknikoak, gehien dela, 110.000 eurotako zenbatekoaz finantzatuko da, «Urdaibain egin beharreko lanak, azterketak eta aholkularitza» izen eta 11.0.1.10.13.0200.3.238.99.44210.012/G zenbakiko partidaren kargura.

2.– Dagozkion kopuruen ordainketa bi epetan egingo da, kopuru osoko % 50ekoa bakoitza. Lehenengo zatiari dagokion ordainketa egin ahal izateko UPV/EHUk garatu diren lanei buruzko txotena aurkeztu beharko du dagokion agiri ekonomikoekin batera eta jarraipen-batzordearen aldeko txostena aurretik dela.

3.– UPV/EHUk, Unesco katedraren bidez, aurkeztuko dizkio jarraipen-batzordeari, bigarren ordainketa jasotzeko aurretiko betebehar gisa eta urtea amaitu aurretik, egindako jarduerei buruzko oroitidazkia eta komenio honetan xedaturiko gastu eta diru-sarreraren behin betiko balantzea, bai eta Euskal Herriko administrazio orokorraren ekarpenaren kargura egindako gastua justifikatzeko dokumentazioa ere.

Bosgarrena.– Jarraipen-Batzordea.

1.– Komenio honetan edukitako proiektu eta ekintzen egitearen jarraipena egiteko, batzorde parekidea eratuko da, Ingurumen, Lurralde-Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako saileko bi ordezkarik, hauetariko bat batzordeburu izanik, eta UPV/EHUko beste bik osatuta.

2.– Bere eginkizunen artean, komenioan jasotakoez gain, honako hauek daude:

● Egingo diren ekintza guztiei buruzko informazioa jaso, komenio honetan ezarritako eginbeharrekoak egingo badira.

● Ekintzetan egin beharreko edozein aldaketa ontzat eman beharko du, egin aurretik.

● Testu honetan jada bildutako jarduerak luzatu edo, hauez gain, jarduera edo proiektu berriak gehitzeko beharra balioetsiko du, jarduera horiek adostutako klausulen menpe geratuko direlarik.

● Komenioaren xedeari onurari lekarkiokeen beste edozein.

Seigarrena.– Lanen zabalkundea.

1.– Edukien argitarapenari dagokionean, I eranskinean aurreikusitako jarduerak egin ez diren bitartean, ezin izango da, komenio honen helburuko ekintzei buruzko edukiak ez osorik ez zatika argitaratu ezelako emaitzarik, edozein bitarte delarik, ez eta aitorpen publikorik egin ere, jarraipen-batzordeak ekintzak zabaldu edo hirugarrenei jakinarazteko baimen espresa tartean izan barik.

2.– Ekintzen ondorioz sor litezkeen txostenak, datuak eta argitarapenak alde biek erabiliko dituzte zeinek bere gestiorako, egileen jabetza intelektualari buruzko eskubideak ezertan ukitu gabe.

Zazpigarrena.– Iraupena.

Komenio hau eranskinean jasotzen den ekintzen kronogramaren arabera urte beteko iraupena du, 2011ko urtarrilaren 1ean hasita eta indarrean egongo da bere helburuko ekintzak amaitu arte; azken epe hau 2011.eko abenduaren 31 izango da.

Zortzigarrena.– Aldatzea eta baliogabetzea.

1.– Lankidetza-komenio hau alde bion adostasunaz aldatu ahal izango da, jarraipen-batzordeak proposatuta. Aldaketa komenioaren indarraldiari dagokion epearen barruan egingo da.

2.– Alde bion adostasunez baliogabetu ahal izango da eta jarraipen-batzordeak komenioaren funtsezko alderdien inguruan kontsentsurik behin eta berriz lortu ezin badu, bai eta sinatzaileetako batek bere klausuletako bat betetzen ez badu, kasuotan, komenioaren salaketa arrazoitua, hiru hilabete lehenago jakinarazita, egin litekeelarik, edo ebazpenerako edozein legezko zio gertatuta ere. Honelakoetan, komenioa behar bezala likidatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko dira.

Jarraipen-batzordeak eginkizunetan segituko du eta, komenioaren ondorioz jardunean ari diren ekintzen inguruan plantea litezkeen arazoak ebazteko ardura izanen du eta, halaber, baliogabetuko balitz, amaitzeke geratuko liratekeen arazoak argitu arte.

Bederatzigarrena.– Izaera eta jurisdikzioa.

1.– Komenio hau Administrazio publikoen erregimen juridiko eta administrazio-prozedura bateratuari buruzko 30/1992 legearen 6. eta 8. artikuluek arautuko dute eta administrazio-izaera du.

2.– Bere gauzatzean lor zitezkeen diferentzien eta betetze-mailaren interpretazio-arazoak jarraipen-batzordeak ebatzi beharko ditu. Adostasunik ezean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legean aurreikusitakoaren arabera ebatziko dira.

Eta arestian adierazitako guztiarekiko adostasun gisa, honako komenio hau sinatu dute ale bitan eta orrialde bakoitzean, idazpuruan jasotako tokian eta datan.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

ERANSKINA

Urdaibaiko Biosferaren Erreserbarako Erabilera eta Gestio-plan gidaria (EGPG) aldatzeko proposamena (2011).

1.– Sarrera.

Biosfera-erreserbaren Erabilera eta Gestiorako Plan Gidaria (EGPG) 1993.eko abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretuak onetsi zuen.

Urdaibaiko biosfera-erreserbaren babeserako eta antolamendurako uztailaren 6ko 5/1989 legeak, 15. artikuluan, aurreikusten du, legea argitaratu eta urte betearen epean, Erabilera eta Gestiorako Plan Gidari bat osatu beharra, erreserba horren lurralde-esparruaren babesteko eta sustatzeko behar besteko erregimen juridiko berezia ezarriko lukeena.

Aipatutako aginduaren betetzeko, Euskal Gobernuaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen-sailak landu eta hasierako dokumentua onetsi zuen erabilera eta gestiorako plan gidari gisa, gerora, zuzenean ukitutako Bizkaiko foru-diputazioko sail ezberdinekin kontsentsuatu zena, beraiekin mantendutako lankidetza trinko eta estuari esker, Euskal Herriko erakunde komunen eta lurralde historikoetako organo foralen arteko harremanei buruzko 27/1983 lege indarrekoan agertutako eskumen-aurreikuspenekin bat eginik.

Urdaibaiko biosfera-erreserbaren erabilera eta gestiorako plan gidaria tresna arauemailea da, 5/1989 legea garatuz hartutakoa, eta erreserba horretako ekosistemen multzoa, bereziki, lurrazaleko eta lurrazpiko uretakoak, jatorrizko landaretza-multzoa babestu eta berreskuratzea du helburu, bai eta Urdaibaiko biosfera-erreserbaren lurzoru ez urbanizagarria behar bezala erabil dadin ahalbidetzea ere.

EGPGk berak aurreikusten du 9. artikuluan indarrean jarri eta hamar urte iragan ostean, berori berrikusi beharko zela eta, honetara, 2003. urtean EGPG eguneratu zen zenbait puntutan, Urdaibaiko biosfera-erreserbaren EGPG aldatzeko otsailaren 11ko 27/2003 dekretuaren bidez, aldaketa nagusiak kartografiaren zuzenketa eta eguneraketa eta EGPGren artikuluetako testuaren zenbait alderdi jakin izanik.

EGPGren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, iragan den epea ikusi eta gerora atera eta aplika dakizkiokeen arauei erreparaturik, Urdaibaiko biosfera-erreserbaren patronatuaren osoko bilkurak 2009.eko abenduaren 11ko bileran aldeko txostena eman zuen berori aldatzeko. Ingurumen, Lurralde-Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako sailburuaren 2010.eko urtarrilaren 28ko aginduaren bidez, erabaki zen arau honen berrikusteko prozedurari ekitea.

2.– Metodologia.

Aitzin-txosten bat prestatuko da, Unesco katedraren eskura (20 bat orri gutxi gora behera), ondoren zerrendatzen diren egileei bost bloke tematikoetako bakoitzari buruz eskatutako aurretiazko txostenen (hiruzpalau orri) ondoriozkoa:

Egileen eginkizunak:

● Lehenengo bileran parte hartzea, txostenaren idazketa koordinatzeko eta jarraibideak emateko (dokumentalerako grabazioa).

● Txostena egitea.

● Bigarren bileran parte hartzea, mintegiaren prestatzeko. (Dokumentalerako grabazioa).

● Ikerketa-mintegian parte hartu eta ponentzia* egin (bloke bakoitzeko egile bana izendatu).

● Hirugarren bileran parte hartzea, mintegiaren ondorioak zehazteko.

Aurretiazko txostenetan puntu gakoak jasoko dira azken aitzin-txostenean laburbiltzeko, zein mintegietako bakoitzean eztabaidatu beharko baita (dokumentalerako grabazioa), txosteneko egilearen kargura osatutako ponentzia eta gaiarekin erlazionatutako gonbidatu baten ponentzia aurretik direla.

Tailerretan ponente bana egonen da –gaiarekiko sarrera egingo duena edo esperientzia zehatzen bat aurkeztuko–, bai eta txosten partzialetako egile-ponenteak eta dinamizatzaileak eta kontalariak ere, hauek ideia gakoak dokumentu labur batean jasoko dituztelarik.

3.– Edukien proposamena.

● 1. Fasea: Aurretiazko txostenak adituei eskatzea.

Jarraibideen orri bat egin beharko da beherago deskribaturiko blokeetan aditutako espezialista bat edo biri aitzin-txosten bat (3-4 orri gutxi gora behera) egin dezatela eskatzeko, gai bakoitzean puntu gakoak direnak bilduz. Blokeen banaketa honako hau da:

1. Blokea.

Ponentzia markoa.

Babes bereziko eremuak:

○ Itsasadar eta itsasbazterraren eremua. PO, P1, P1.1, P2, C1 eta C2 eta P4 (itsasbazterra) (EGPGren kalifikazioa).

○ Artadi kantauriarren eremua. P3 (EGPGren kalifikazioa). Artadi kantauriar, berezko zuhaizti eta higadura-arrisku handiko lurzoruen babes-aldea (P5 EGPGren kalifikazioa).

○ Arkeologi intereseko eremuak. YA eta YA (EGPGren kalifikazioa) geoaniztasuna eta ondare geologikoa.

2. Blokea.

Ponentzia markoa.

Babesteko esparruak:

○ Erreka-ertzen aldea (P4 EGPGren kalifikazioa).

○ Natura, paisaia eta histori interes handiko aldeak (P4 EGPGren kalifikazioa). Paisaia-babeserako aldeak eta ikusizko urrakortasun eskenografiko handia duten lurraldeak (P6 EGPGren kalifikazioa).

○ Historia, arte, kultura eta paisaia-interes handiko eraikin, instalakuntza eta multzoen aldea edo tokia (P7 EGPGren kalifikazioa).

3. Blokea.

Ponentzia markoa:

○ Nekazaritza-intereseko eremuak (A1, A2 eta A3 EGPGren kalifikazioa).

○ Oihan-eremuak (F1 eta F2 EGPGren kalifikazioa).

○ Turismo jasangarria eta baserri-garapena.

4. Blokea.

Ponentzia markoa:

○ Populazio-guneen eremuak.

○ Baserri-lur arrunteko eremuak (BLA EGPGren kalifikazioa).

○ Sistemen eremuak (azpiegiturak) (IS EGPGren kalifikazioa).

○ Sistemen eremuak (hornidurak) (ECR EGPGren kalifikazioa).

○ Lurzoru ez urbanizagarrietako baserria.

5. Blokea.

Ponentzia markoa.

○ Patronatuaren antolaketa eta funtzionamendu-erregimena.

○ Arau ezberdinen eta EGPGren arteko gainjartzea: prebalentzien zehaztapena eta kontraesanen gainditzea.

○ Lurpea arautzeko beharra.

● 2. Fasea: aurretiazko txostena egitea.

Unesco katedraren esku jarriko da aurretiazko txostena baten idazketa, mintegi zientifiko teknikoetan eztabaidatu beharreko puntu gako eta esanguratsuenak jasoko dituena. Dokumentu hau tailerretan parte hartuko duten guztiei igorriko zaie (intraneteko web atarian jartzeko aukera aztertu).

● 3. Fasea: mintegi zientifiko teknikoak egin.

Proposatutako bloke tematiko beste mintegi antolatuko eta burutuko dira, egileek aurretiazko txostenetan identifikatutako puntu gakoei buruz eztabaidatzeko. Mintegi hauek jardunaldi osoan zehar luzatuko dira eta grabatu egingo dira dokumental bat egitearren. Bertan parte hartzera gonbidatuko dira UPV/EHUko ikertzaileak, Bizkaiko foru-diputazioko teknikariak, euskal gobernukoak eta udalekoak (gonbidapen pertsonalizatuak, parte har lezaketen balizko pertsonen datu-basea osatu).

● 4. Fasea: ondorioak aurkeztu eta bateratze-lana.

Bost mintegiok eta horietako bakoitzaren osteko bilerak egin ostean, bilera bana egingo da emaitzen bateratze-lana egiteko. Uztailean egiteko aurreikusia.

● 5. Fasea: azken dokumentua prestatzea.

Mintegiak amaiturik, dokumentu idatzia egingo da lan-jardunaldi osoan zehar egindako ekarpenen ondorioz. Dokumentu idatzi sintetikoa izango da, bataz beste 20-30 orrialdetakoa. Dokumentuan, gutxien dela, honako hauek ageriko dira:

○ Bloke bakoitzari buruzko ponentzia markoen laburpena.

○ Arlo tematiko bakoitzeko aitzin-txosten diziplinanitzak.

○ Mintegietan egindako eztabaidetan ateratako ondorio nagusien laburpena.

○ Sintesirako dokumentua.

Halaber, ikusentzuteko dokumentuak (DVD) ere eginen dira, prozesuaren ondorioak laburtuz. Zehazkiago:

○ Arlo tematiko bakoitzari buruzko 3-5 bat minututako 5 tarte.

○ Arlo tematiko bakoitzari buruzko 20 minututako 5 dokumental.

Dokumentuotan aurreikusitako egileei eginiko elkarrizketak jasoko dira, partaidetza-prozesua ilustratuko da eta Urdaibaiko ekosistema berezien irudiak gehituko dira.

4.– Kronograma.

2011ko egutegia

Urtarrila 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Otsaila 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						

Martxoa 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Apirila 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14R	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Maiatza 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12R	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26R	27	28	29
30	31					

Ekaina 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9R	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30R			

Uztaila 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Abuztua 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Iraila 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Urria 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Azaroa 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Abendua 2011

Al	Ar	Az	Og	Ol	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

5.– Gestio-taldea eta proiektuaren burutzea.

● Zuzendaritza: Miren Onaindia Olalde.

● Jardueren garapena eta koordinazioa: Jasone Unzueta eta kontratatutako pertsonal ikertzailea (KPI).

● «Ingurumen eta jasangarritasunerako espezialista» berezko tituluko praktiketan den pertsonala.

6.– Aurrekontua.

Gestio-taldea eta proiektuaren burutzea	Euro
– Proiektuaren egiteko laguntza-pertsonala	28.672
– Berezko tituluko praktikako pertsonala	3.000
1. Fasea: Aurretiazko txostenak adituei eskatzea	
– Aitzin-txostenetako egileentzako ordainketa (200 euro x 40 egile)	8.000
2. Fasea: Aurretiazko txostena egitea	
– Web atariaren mantentzea	4.248
– Itzulpenak (web-erako albisteak, aitzin-txostenak)	3.500
– Dokumentala (mintegi zientifikoak prestatu eta osteko bileren grabazioa eta edizioa)	29.500
3. Fasea: Mintegi zientifiko teknikoak egin	
– 8 coffe break	3.000
– 1 bazkari-luncha (maiatzak 26)	756
– Esparru nazionaleko ponente batentzako ordainketa (700 euro)	700
– Joan-etorriak eta egonaldiak	1.100
4. Fasea: Azken dokumentua prestatzea	
– Azken dokumentuaren itzulpena	3.600
– Azken dokumentuaren argitaratzea (diseinua eta maketazioa)	3.500
– Azken dokumentuaren CDren argitaratzea (250 ale)	2.500
Bestelakoak	
– Bulegoko materiala	250
– Ekipo informatikoa	1.414
Gastu zuzenak, guztira	93.740
Zeharkako gastuak	16.260
Guztira	110.000

VIII. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 23KO 47/2011 EBAZPENARENA

ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN (INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAREN) ARTEKO PROTOKOLO OROKORRA, LANDA-INGURUNEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO ABENDUAREN 13KO 45/2007 LEGEA EZARTZEKO

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 15a.

BILDUTA:

Alde batetik, Josep Puxeu Rocamora jauna, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioko Landa-inguruneko eta Uretako estatu-idazkaria. Apirilaren 21eko 574/2008 Errege Dekretu bidez izendatu zuten kargu horretarako Puxeu Rocamora. Estatuko Administrazio Orokorreko departamentu horren izenean dator Puxeu Rocamora jauna, eta hura ordezkatuko du, horretarako ahalmena baitu eskumenak eskuordetzeari buruzko ekainaren 8ko ARM 1603/2010 Aginduko I. kapituluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

Beste aldetik, Pilar Unzalu Pérez de Eulate andrea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko sailburua, Lehendakariaren maiatzaren 8ko 13/2009 Dekretuari jarraiki (haren bidez xedatu zen bera izendatzea), eta 2011ko uztailaren 19ko Gobernu Kontseiluaren bidez eman zaizkion eskumenak baliatuz.

Agertutako alderdiek, nork bere kargua ordezkatuz, Protokolo hau sinatzeko behar den lege-ahalmena aitortzen diote elkarri, eta, xede horretarako, libreki hau

ADIERAZI DUTE:

1.– Estatuko Administrazio Orokorraren ardura da, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren bitartez, landa-garapenaren alorreko gobernu-politikak proposatzea eta gauzatzea, besteak beste. Horrez gain, autonomia-erkidegoekin lankidetzan aritzea dagokio, landa-ingurune koherente, harmoniadun eta iraunkorra lortzeko. Hori guztia Konstituzioak eta, bereziki, Konstituzioko 149.1.13 artikuluak, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriei eta horren koordinazio orokorrari buruzkoak, Estatuari esleitutako eskumenen esparruan dago.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoak, besteak beste, landa-garapenaren alorreko eskumenak ditu, nekazaritzako eta abeltzaintzako eskumen berezia barne, ekonomiaren antolamendu orokorrari jarraiki; hala zehazten da, hain zuzen, Euskal Autonomia Estatutuaren 10.9 artikuluan eta Konstituzioaren 148.7 artikuluan. Euskadin, eskumen horiek arau hauen bidez gauzatu dira, besteak beste: apirilaren 8ko 10/1998 Legea, Landa Ingurunearen Garapenekoa, eta azaroaren 11ko 185/2008 Dekretua, Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzekoa, 2007-2012 aldiko Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera.

3.– Gorte Nagusiek abenduaren 13ko 45/2007 Legea onartu dute, landa-ingurunearen garapen iraunkorrerakoa. Lege horren xedea da landa-ingurunearen garapen iraunkorra bultzatzeko neurriak ezartzea, beren konstituzio-eskubideak gauzatzeko herritar guztiek duten berdintasuna bermatzeko oinarrizko baldintzak, batetik, eta ingurune horretako jarduera ekonomikoaren antolamendu orokorrerako oinarriak, bestetik.

4.– Aipaturiko Legeak arautzen duenez, Legea ezartzeko plangintza ekainaren 4ko 752/2010 Errege Dekretuak onartutako Landa Garapen Iraunkorreko Programaren bidez egin behar da; 752/2010 Dekretuak, hain zuzen, 2010-2014 aldirako landa-garapen iraunkorrerako lehenengo programa onartu zuen, landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legea aplikatuz.

5.– Landa Garapen Iraunkorreko Programa 45/2007 Legea ezartzeko tresna nagusitzat eratu da, eta landa-inguruneko neurriak —estatu-mailakoak nahiz erkidegokoak— zehazten ditu, bai eta horiek gauzatzeko prozedurak eta bitartekoak ere; neurri horiek guztiak lotuta daude Legearen helburuekin, adibidez: landa-inguruneetako biztanleriaren egoera sozioekonomikoa eta bizi-kalitatea hobetzea, ingurumen-errespetuaren baitan, eta natura-baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea.

6.– Autonomia-erkidegoek, landa-irizpide bateratu batzuen arabera, mugatutako eta kalifikatutako landa-eremuetan dauden udalerrietan ezarriko da Landa Garapen Iraunkorreko Programa. Landa-eremu horietako bakoitzerako eremu-plan bat egingo da, Landa Garapen Iraunkorreko Programan modu orokorrean jasotako neurriak eta ekintzak landa-eremuaren eskalan planifikatzeko.

7.– Bi administrazioen artean gauzatu beharreko ekintzen hitzarmen-esparrua prestatzeko, lehenik eta behin, lankidetza-oinarriak eta konpromiso nagusiak definitu behar dira, Protokolo Orokor baten bidez; amaieran, eremu-planak egingo dira Programan sartutako autonomia-erkidegoetako landa-eremuetan, eta, horrela, jarduerak nola gauzatu adostu ahal izango da gero, lankidetza-hitzarmen egoki baten bidez.

8.– Protokolo horretan, eremu-planak zer eremutarako egingo diren zehaztu behar da, honako hauek aintzat hartuta: Programaren lurraldeko lehentasun-irizpideak, eremu-planen egikaritze- eta gauzapen-faseetako jarduerak koordinatzeko bi aldeek ezarritako departamentu arteko gobernantza-organoak, alde bakoitzaren koordinazio-organo eraginkorra, aurreikusitako finantza-estaldura, kronograma orokorra, eta eremu-planak egiteko prozesua gidatzen duen Jarraipen Batzordea.

9.– Estatuko Administrazio Orokorraren nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu-aurreikuspenak, protokolo honen bigarren klausulan jaso direnak, orientagarriak dira soilik, Euskal Autonomia Erkidegoak eremu-planak gutxi gorabeherako finantza-esparru batean presta ditzan; beraz, ez die aldeei kofinantziaziorako inolako konpromisorik ezartzen. Konpromiso hori etorkizunean bideratu beharko da, Programaren araberako eremu-planak eginda daudenean, bi aldeen arteko lankidetza-hitzarmen egoki baten bidez. Estatuko Administrazio Orokorraren aurrekontu-aurreikuspenei dagokienez, horiek bat datoz guztiz hainbat urtetarako egindako aurreikuspenekin; aurreikuspen horiek Ministro Kontseiluak jada onartuta ditu 752/2010 Errege Dekretuaren bidez, eta Landa Garapen Iraunkorreko Programaren 7. kapituluan daude zehaztuta (142. BOE, 2010eko ekainaren 11koa; 49796.-49799. or.).

10.– Protokolo hau egiteko, Ministro Kontseiluak ekainaren 4ko 752/2010 Errege Dekretuan onartutako eredua hartu da oinarri, Errege Dekretu horretan Euskal Autonomia Erkidegorako egindako zehaztapenera egokituta, bertako Kontzertu Ekonomikoaren erregimen-berezitasuna dela-eta. 752/2010 Errege Dekretuaren bidez, 2010-2014 aldirako lehen Landa Garapen Iraunkorreko Programa onartu zen, landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legeari jarraiki. Beraz, ez da behar Autonomia Politikarako Gobernu Batzorde Delegatuaren baimenik.

11.– Aurrez zehaztutakoaren arabera, bi aldeek protokolo orokor hau egiteko nahia adierazi dute, Landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legea aplikatzeko, betiere klausula hauek kontuan hartuta:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Protokolo Orokorraren xedea.

Protokolo Orokor honen xedea da Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko lankidetzarako oinarriak eta esparrua zehaztea, lehen Landa Garapen Iraunkorreko Programa —landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legean ezarritakoa— erkidego horretan ezartzeko prozesua prestatzeko; horretarako, eremu-planak egingo dira, adostasuna bilatuz eta partaidetza sustatuz.

Bigarrena.– Protokoloaren xede diren jarduerak.

1.– Hauek dira protokolo honetan aipatzen diren prestakuntza-jarduerak:

A) Departamentu arteko eta lurraldeetako gobernantza-sistemak ezartzea, landa-eremuetako planak modu koordinatuan eta lurralde bakoitzeko erakundeen eta eragileen partaidetzarekin egitea bermatzeko beharrezko direnak.

B) Eremu-planen proiektuak egitea.

C) Bi administrazioek eremu-planen proiektu horiei buruzko iritziak adostea —horrela, proiektu horiek gauzatzeko lankidetza-hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte—, eta Euskal Autonomia Erkidegoak horiek onartzea.

2.– Behean zerrendatutako landa-eremuetan gauzatuko dira lanok; landa-eremuak, hain zuzen, ekainaren 4ko 752/2010 Errege Dekretuan (landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legea aplikatuz, 2010-2014 aldirako landa-garapen iraunkorreko lehenengo programa onartzen duenean) onartutako Landa Garapen Iraunkorreko Programan daude deskribatuta.

Landa-eremuak: bertan eremu-planak egingo dira		
Landa-eremua	Lurralde Historikoa	kalifikazioa eta lehentasun-maila
Enkarterrialdea	Bizkaia	Erdi-mailako landa-eremua. 2. maila
Arabako Mendialdeko Landa-Eremua (Izki)	Araba	erdi-mailako landa-eremua. 2. maila
Goierriko Landa-eremua	Gipuzkoa	erdi-mailako landa-eremua. 2. maila

Erkidegoko landa-eremuetako planen aurrekontuak egiteko erreferentziatzat balio duen finantza-estaldura zehazteko, bi aldeek finantza-aurreikuspen orokor hauek egin dituzte plan guztietarako: urtea	Aurrekontu-aurreikuspen orientagarriak. Autonomia-erkidegoa. Berezko jarduerak. (% 100eko finantziazioa)	Estatuko Administrazio Orokorraren aurrekontu-aurreikuspen orientagarriak. Interes orokorreko azpiegiturak (% 100eko finantziazioa) (414 B programa)
2011		13.471.000
2012	4.490.333	
2013	4.490.333	
2014	4.490.334	
Guztira	13.471.000	

Aurreikuspen horiek guztiz orientagarriak dira, eta ez dute bi aldeen inolako finantziazio-konpromisorik adierazten. Behin autonomia-erkidegoko eremu-planen proiektuak aurreko finantza-aurreikuspenen esparruan egitean, bi aldeek akordioa gauzatuko dute lankidetza-hitzarmenaren bidez adostuta eta kofinantziatuta.

Hirugarrena.– Estatuko Administrazio Orokorraren konpromisoak

Protokolo honetan aipatzen diren jarduerak behar bezala gauzatzeko, Estatuko Administrazio Orokorrak konpromiso hauek hartzen ditu:

1.– Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioko Landa-inguruneen Garapen Iraunkorrerako Zuzendaritza Nagusia izendatzea kudeaketarako eta koordinaziorako organo eraginkortzat. Ekintzak gauzatzeaz arduratzen diren Ministerioko zuzendaritza-zentroekin —Landa Ingurunerako ministerio arteko Konferentziaren koordinazio-esparru instituzionalaren baitan— eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde homologoarekin gauzatuko du koordinazioa.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoarekin parte hartzea eremu-planak egiten, 45/2007 Legera eta Landa Garapen Iraunkorreko Programaren zehaztapenetara ongi egokitzen dela zainduz.

3.– Protokolo honetan hartutako konpromisoak betetzeari eta landa-eremuetako planen jarduerak adosteari dagokienez Protokoloaren Jarraipen Batzordean adostasuna lortzen denean, eremu-planen proiektuen txostenak Landa Garapeneko Elkarteen Mahaiaren eta Landa Ingurunerako Kontseiluaren bilkurako gai-zerrendan sartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin lankidetza-hitzarmena sinatzera bultzatzea, proiektua gauzatu ahal izateko.

4.– Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioko Landa-inguruneen Garapen Iraunkorrerako Zuzendaritza Nagusiaren gastu-aurrekontuan behar beste kreditu izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan interes orokorreko azpiegiturak gauzatzen hasi ahal izateko (414 B programa); kreditu hori 2012ko aurrekontuaren kontura izango da.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoaren konpromisoak.

1.– Protokoloan aipatu diren jarduerak behar bezala gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak konpromiso hauek beteko ditu:

a) Eremu-planak egiteko eta gero gauzatzeko landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legean, 16.-33. artikuluetan, adierazitako gaietan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko departamentuen arteko koordinazio instituzionala antolatzea, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren bidez; zuzendaritza horrek, hain zuzen, landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legean zehaztutako gaietan eskumena duten zuzendaritza nagusi hauek osaturiko lan-taldea koordinatuko du: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien Zuzendaritza; Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza; Osasun eta Kontsumo Saila; eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Baliabide Materialen Zuzendaritza.

b) Itsasmendikoi SA Sozietate Publikoari agintzea Autonomia Erkidegoaren koordinazio eraginkorrerako organo arduradunaren funtzioa betetzeko, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak lehenengo paragrafoko a) idatzi-zatian zehazten duen esparruaren baitan; besteak beste, ardura hauek izango ditu: koordinazio eraginkorra gauzatzea, 1. paragrafoko c) idatzi-zatian zehaztutako eremu-planen proiektuak burutzea, eta 1. paragrafoko d) idatzi-zatian aipatzen den partaidetza publikorako programa egin eta gauzatzea.

c) Eremu-planen proiektuak egitea.

d) Protokolo hau sinatzen den egunetik hilabeteko epean, eremu-plan bakoitza egiteko prozesuan jarraitu beharreko partaidetza publikoko jardueren programa egitea eta jendaurrean jartzea, eta horren ondoren hori gauzatu dela adieraztea, bai eta zer emaitza lortu diren ere.

e) Protokolo Orokor honen bigarren klausulan zehaztutako landa-eremuetako Landa Garapen Iraunkorreko Elkarteak —ekainaren 25eko 158/2002 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-garapeneko elkarteen berariazko araudiari buruzkoan, araututakoaren arabera eratu direnak— plangintzaren xede den landa-eremu bakoitzeko partaidetza-organo izendatzea; horrela, benetako partaidetza publikoa eta eraginkorra lortu nahi da, bai eremu-plana egiteari dagokionez, bai planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteari dagokionez. Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari batek organo horren bilkuretara joan ahal izango du, behatzaile moduan; horretarako, beraz, bitarteko elektronikoak erabiliz, deialdi guztien berri emango zaie bai Gobernu Ordezkaritzari bai Landa-inguruneen Garapen Iraunkorrerako Zuzendaritza Nagusiari, gainerako kideei jakinarazten zaien epe berdinetan.

f) Protokolo hau sinatzen denetik, gehienez ere, lau hilabeteko epean, eremu-planen proiektuak izatea, Landa Garapen Iraunkorreko Programan zehaztutako ezaugarriekin; proiektu horietan, aurreikusitako partaidetza publikoko programa gauzatu dela egiaztatu behar da, bai eta programaren ingurumen-ebaluazioa amaitu dela ere; gainera dagokion ingurumen-memoria bateratua aurkeztuko da, beharrezko izango balitz.

g) Eremu-planak onartzea; aurrez, Estatuko Administrazio Orokorrarekin hitzartu behar dira planen baldintzak, Landa Garapen Iraunkorreko Programak zehazten dituen moduan. Erkidegoko ekintzen kategoriak adosteko prozesuak eta interes orokorreko obra publikoak aldi berean erabaki ezin badira, eremu-planaren onarpena partziala izan daiteke, eta, beraz, planak adostu diren jarduerei soilik eragingo die.

h) 2012. urterako eta hurrengoetarako Autonomia Erkidegoko aurrekontuen lege-proiektuetan eremu-planak egiteko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak eta -zuzkidurak sartzea, bigarren klausulako aurreikuspenekin koherenteak direnak.

Bosgarrena.– Jarraipen Batzordea.

a) Protokolo honen ondoriozko jardueren Jarraipen Batzordea sortu da; zehazki, honela osatuta egongo da:

Lehendakaria: Landa-inguruneen Garapen Iraunkorrerako zuzendari nagusia, edo funtzio horretarako izendatzen duen pertsona.

Estatuko Administrazio Orokorraren aldetik, honako hauek:

● Landa-inguruneen Garapen Iraunkorrerako zuzendari nagusiak izendatutako bi ordezkari.

● Gobernu Ordezkaritzaren bi ordezkari.

Euskal Autonomia Erkidegoaren aldetik, honako hauek:

● Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordea; lehendakariordea izango da.

● Sailburuordetzako bi ordezkari, sailburuordeak izendatuko dituenak.

Ezinbestekoa den bilkuretan, jarduerek eragindako departamentuetako aholkularien laguntza izan dezakete bi aldeetako ordezkariek Batzordean; aholkulari horiek hitz egin ahal izango dute, baina ezingo dute botoa eman.

Batzordeko idazkari-lanak Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioko Landa-inguruneen Garapen Iraunkorrerako zuzendari nagusiak izendatutako pertsonak egingo ditu, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Jarraipen Batzordeak funtzio hauek izango ditu:

● Protokolo hau gauzatzearen ondorioz hasitako jarduerei buruz bi aldeek duten informazioaren trukea erraztea.

● Bi aldeen arteko lankidetza eta koordinazioa erraztea, eremu-planak egiteko eta adosteko.

● Eremu-planak Landa Garapen Iraunkorreko Programaren esparruan egiten direla bermatzea.

● Euskal Autonomia Erkidegoak landa-eremu bakoitzerako egindako eta garatutako partaidetza publikoko programak ezagutzea eta adostea, bai eta horien emaitzei buruzko dokumentuak ere.

● Eremu-planen baldintzak adostea, jarduerak gauzatzeko bi aldeen artean lankidetza-hitzarmenak sinatu eta Euskal Autonomia Erkidegoak horiek onartu aurretik.

● Programaren baitan, informazioa emateko eta publizitatea egiteko jarduerak nola egin behar diren zehaztea, Batzordeak zehaztutakoari jarraiki.

● Protokoloa interpretatzeari edo ezartzeari dagokionez sor daitekeen edozein zalantza edo desadostasun konpontzea.

c) Batzordea aldeetako batek hala eskatzen duenean bildu ahal izango da, bertaratuta edo modu birtualean, eta, izatekotan, hitzarmena egiteko eremu-planen proiektuak eginda daudenean.

d) Jarraipen Batzordearen erabakiak estatuko eta erkidegoko aldeen adostasunez hartu beharko dira. Batzordeak funtzionamendu-arau propioak ezarriko ditu. Arau horiek izan ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluan xedatutakoaren arabera jardun ahal izango da.

Seigarrena.– Publizitatea, identifikazioa eta aurkezpen publikoa.

Bi aldeek konpromisoa hartzen dute Protokoloaren ondorioz sortzen diren jarduerak seinaleztatzeko eta identifikatzeko, Landa Garapen Iraunkorreko Programaren eta bi administrazioen logotipoen eta ereduen bidez (eranskinean adierazi dira), bakoitzaren identitate korporatiboko arauen arabera. Jarduera horien artean sartzen dira, besteak beste, partaidetzarako, hedapenerako eta informaziorako erabilitako material guztiak —inprimaturikoak, ikustekoak, entzutekoak edo beste edozein eratakoak—, bai eta prozesuan sortzen diren lan-dokumentuak eta behin betiko dokumentuak ere, partaidetza-prozesuetako hartzaileei banatuko zaizkienak edo jendearen eskura jarriko direnak.

Bi aldeek baliokidetasun-baldintzetan hartuko dute parte protokolo honetan zehaztutako jardueren jendaurreko aurkezpen-ekitaldietan; horretarako, aurretiaz emango zaie jarduera horien berri.

Zazpigarrena.– Aldatzea eta suntsitzea.

1.– Protokolo orokor hau aldatu edo luzatu ahal izango da, bi aldeak ados jarrita, Aldaketa Akordio bat formalizatuz; akordio hori Protokoloaren iraupen-aldia iraungi baino lehen sinatu beharko da.

2.– Protokolo orokor hau suntsitzeko kausak honako hauek izango dira:

● Bi aldeak ados jartzea.

● Aldeetako batek baldintzaren bat ez betetzeagatik salaketa jartzea; salaketa horren berri eman beharko zaio baldintza bete ez duenari, dokumentu fede-emaileak erabiliz.

● Eremu-planen proiekturik ez izatea edo departamentuen arteko koordinazio-organorik edo lurraldeko partaidetza-organorik ez sortzea edo ezartzea.

● Eremu-planen alderdietakoren bati edo horien jarduerak hitzartzeari dagokionez adostasunik ez lortzea, Jarraipen Batzordearen bi bilkura jarraitu egin eta gero.

Zortzigarrena.– Ondorioak eta iraupena.

Protokolo orokor hau indarrean egongo da sinatzen den egunetik hasi eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta Estatuko Administrazio Orokorrak Lankidetza Hitzarmena egiten duten arte, onartutako Landa Garapen Iraunkorreko Programaren baitan, eremu-planetan zehaztutako ekintzak gauzatzeko; eta, edonola ere, 2012ko ekainaren 1era arte, aurreko klausularen arabera epea luzatzen denean salbu.

Bederatzigarrena.– Izatasuna eta jurisdikzioa.

Protokolo orokor honek administrazio-izaera du; beraz, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. eta 8. artikuluetan araututakoa aplikatuko zaio.

Protokolo hau Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, lege horren 4.1.c) artikuluan aratutakoari jarraiki; dena den, horren printzipioak aplika daitezke, sor daitezkeen zalantzak eta akatsak konpontzeko.

Protokoloa gauzatzean interpretazioari eta betetzeari dagokionez sor daitezkeen desadostasunak konpontzea Jarraipen Batzordeari dagokio. Akordiorik ezean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean araututakoaren arabera erabakiko dira.

Eta adostasunaren adierazle, bi aldeek Protokolo orokor honen bi ale sinatzen dituzte, hasieran adierazitako lekuan eta datan, alearen orrialde bakoitzean izenpetuz.

Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako ministroa.

Eskuordetzaz landaren eta itsasertzaren estatu-idazkaria, (ARM 1603/2010 agindua)

JOSEP PUXEU ROCAMORA.

Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

PROTOKOLO OROKORRAREN ERANSKINA

PROTOKOLO OROKORRAREN ONDORIOZKO EKINTZEN BERRI EMATEKO, HORIEN PUBLIZITATEA EGITEKO ETA HEDATZEKO JARDUERETAN ERABILI BEHARREKO LOGOTIPOAK ETA EREDUAK

LANDA-GARAPEN IRAUNKORREKO PROGRAMAREN LOGOTIPOA

ARGITALPENETARAKO EREDUA

AZALA ATZEALDEA



IX. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 23KO 47/2011 EBAZPENARENA

LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, TELELAGUNTZA ZERBITZUA ESKAINTZEKO

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 4a.

BILDU DIRA:

Alde batetik, María Gemma Aránzazu Zabaleta Areta andrea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua bere karguaren jardunean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta hura ordezkatuz.

Eta bestetik, Ander Rodríguez Lejarza jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatuz.

Bi alderdiek hitzarmen hau formalizatzeko nahikoa eta beharrezkoa den ahalmen juridikoa eta jarduteko ahalmena aitortzen diote elkarri eta, ados jarrita, horretan aritzeko eman zaien ordezkaritza elkarri onartuta, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urriaren 6ko 538/2009 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, Gizarte Gaietako Sailburuordetzari dagokio gizarte-zerbitzuei eta gizarte-ongizateari buruzko politika publikoak planifikatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea.

Kalteberatasuneko eta bazterkeria-, marjinazio- eta pobrezia-egoeren kronifikazioko egoerei loturiko arreta-premia eta -eskariei aurre egiten ari zaizkie gizarte-zerbitzuak, eta kolektibo kalteberenak hartzen dituzte bereziki eraginpean, adineko pertsonak, besteak beste.

Bigarrena.– Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (aurrerantzean 12/2008 Legea) 5. artikuluan ezartzen duenez, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema Publikoa arreta emateko eta erantzukizun publikoko sare publiko arautu gisa eratu da, eta pertsona, familia eta talde guztiak gizarteratu daitezen eta gizarte-autonomia eta -ongizatea lor dezaten laguntzea du helburutzat; horretarako, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuko du, batez ere pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Hirugarrena.– 12/2008 Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen bere katalogoan biltzen du telelaguntza-zerbitzua, eta berau zuzeneko ekintzakotzat deklaratzen da, 12/2008 Legearen 40.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Telelaguntzatzat ulertzen da alerta eta gainbegiraketako sistemen multzoa osatzen duen zerbitzua, sistema horiek egunean 24 orduz bermatzen dutela, urteko egun guztietan, berehalako harremana arreta-talde batekin, eta hark, beharrezkoa izanez gero, eskaturiko arreta mota berehala baliatzeko aukera emango du, autonomia- edota segurtasun-sentimendua sendotuta.

Laugarrena.– Eskumen-banaketaren aldaketa bat finkatu du 12/2008 Legeak, telelaguntza-zerbitzua Eusko Jaurlaritzak zuzkitu beharreko zuzeneko laguntzan bilduriko prestazio eta zerbitzuen artean bilduta, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko indargabeturiko 5/1996 Legean eta uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuan ez bezala, horien arabera udalerriei baitzegokien telelaguntza-zerbitzuaren esleipena.

Bosgarrena.– Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ez dauzka oraindik bitarteko material eta tekniko beharrezko eta egokiak telelaguntza-zerbitzua emateko, eta hori horrela, aldi baterako dagozkion neurriak hartzea dagokio gaur egun zerbitzu hori ematen ari diren administrazioek telelaguntza-zerbitzua ematen jarrai dezaten, Eusko Jaurlaritzak zerbitzua benetan zuzkitzen duen arte.

Gipuzkoako Foru Aldundia ari da telelaguntza-zerbitzua ematen Gipuzkoako Lurralde Historikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskal Udalerrien Elkartearen (Eudel) Esparru Akordioari jarraiki, telelaguntza-zerbitzua emateko baldintzak definitzeko, 2007ko otsailaren 6an izenpeturikoa, eta telelaguntza-zerbitzuaren kudeaketa-mandatua formalizatzeko udalerri bakoitzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmen partikularrei jarraiki.

Seigarrena.– Aurreko guztiaren arabera eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 89. eta 37. artikuluetan, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko toki-araubidearen alorreko indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bateginaren 70. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluan finkaturikoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako Lurralde Historikoan telelaguntza-zerbitzuaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari agintzea dagokio.

Zazpigarrena.– Kudeaketa-mandatua hitzarmen honen bidez formalizatuko da, eta mandatuaren baldintzak ezarriko ditu alderdi sinatzaileen arteko lankidetza kontuan hartuz, arestian aipaturiko helburua hobeto lortzeko.

Zortzigarrena.– Bi alderdiak beren interesetan ados daudela, ondorengo klausulen arabera erabaki dute hitzarmen hau formalizatzea

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoako Lurralde Historikoan telelaguntza-zerbitzua emateko kudeaketa-mandatuaren baldintzak ezartzea da hitzarmen honen xedea, 2011ko lehen seihilekoari dagokion aldian, 2011ko urtarrilaren 1etik 2011ko ekainaren 30era arte.

Mandatu hori izaera teknikoko jardueren kudeaketari dagokio soilik, eta beharrezkoak diren giza bitarteko eta bitarteko materialekin zuzkituko da Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bigarrena.– Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak.

2.1.– Telelaguntza-ekipoak:

● Telelaguntza-zerbitzuaren hornitzaileei telelaguntza-ekipoak ematea, telefono-terminal batez eta erabilera-lagapeneko erregimeneko alarma eramangarriko unitate batez osaturikoa.

● Telelaguntza-ekipoak instalatzeko, mantentzeko eta konpontzeko zereginak.

● Zerbitzuaren garapenean esku hartzen duten erakundeek erabilitako sistema telefoniko edota informatikoekin integratzea.

2.2.– Oinarrizko gizarte-zerbitzuek igorritako eskaerak izapidetzea.

2.3.– Aurkeztuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak:

– sei hilean behingo memoria bat, estatistika-informazioa bilduko duena harturiko kasuei buruzkoa, egindako zerbitzu motaren, egindako jardun kopuruaren, sexuaren, adinaren eta abarren arabera. Harturiko kasuetan sumaturiko gorabeherak bilduko ditu memoria horrek, baita honako alderdi hauekin loturikoa ere: kudeaketa, bilakaera eta eskarira egokitzea, izandako gorabeherak, zerbitzuaren balorazioa eta hura hobetzeko proposamenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2 hilabeteko epea izango du sei hilean behingo memoria aurkezteko, kudeaketa-mandatuaren seihilekoa amaitutakoan.

2.4.– Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Sailari justifikatu beharko dio eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, baita mandatuko jarduera edo jarduerak egin izana ere, hitzarmen honetan aurreikusitako moduan eta epeetan betiere.

Betebehar hori ez betetzeak mandatua ezeztatzea eragingo du, seigarren klausulan aurreikusitakoaren arabera.

2.5.– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin beharreko eta aurreikusiriko egiaztapen-jardunak onartuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak.

2.6.– Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari jakinaraziko dio hitzarmen hau adosteko kontuan harturiko edozein zirkunstantziaren, objektiboa edo subjektiboa dela, aldaketa.

2.7.– Hitzarmen honen iraunaldia amaitutakoan, honako konpromiso hauek beteko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak:

● Eusko Jaurlaritzari besterenduko dio, inolako kontraprestaziorik gabe, bigarren klausulan adierazitako ekipoen jabetza, erabiltzaileen egoitzetan erabiltzeko lagata daudenenak zein dagokien erabilera etorkizunean lagatzeko erabilgarri dauden izakinenak.

Hirugarrena.– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren betebeharrak.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak konpromisoa hartzen du berrehun eta hamalau mila (214.000) euroko diru-kopurua bideratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak kudeaturiko telelaguntza-zerbitzuaren funtzionamenduaren ondoriozko gastuak finantzatzeko. 2011. urteko lehen seihilekoari dagokion zenbateko hori ekitaldi horri dagokion aurrekontu arruntaren kargura ordainduko da, eta dagokion aurrekontu-partidan dago erabilgarri.

Kudeaketa mandatua egiteagatiko ordainketa honela gauzatuko da, betiere 2011ko aurrekontuaren kargura:

1.– Lehenengo ordainketa, hitzarturiko zenbatekoaren % 50ari dagokiona, ehun eta zazpi mila (107.000) euroko zenbatekoaz, hitzarmen hau indarrean hastean gauzatuko dena.

Gainerako % 50ari dagokion bigarren ordainketa honako dokumentazio hau aurkeztutakoan egingo da, aurretik dagokion likidazio Aginduarekin:

a) Kudeaketa-mandatuaren iraunaldiari dagokion memoria.

b) Ziurtagiria, Gipuzkoako Foru Aldundiko fede publikoz hornituriko dagokion funtzionarioak emandakoa, bertan mandatua egitearen ondoriozko gastuak eta telelaguntza-zerbitzuaren prezio publikoagatiko diru-sarrerak bilduta.

Ordainketen gehieneko muga Gipuzkoako Foru Aldundiak jasanarazitako benetako gastua izango da, esleituriko sei hilean behingo zenbatekoaren gehieneko mugarekin.

Gastuaren ziurtagiriarekin batera Hitzarmenaren iraunaldian garaturiko azalpen-memoria beharko da, aurretik zehazturiko informazio guztia barne.

Ziurtagiria zein Hitzarmenaren iraunaldian garaturiko jardueren memoria Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuen zuzendariari aurkeztu beharko zaizkio bi hilabeteko epean kudeaketa-mandatuaren seihilekoa amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Dena den, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ekarpenak berrehun eta hamalau mila (214.000) euroko gehieneko muga izango du. Egindako gastuaren eta zerbitzua zuzkitzeko jasotako prezio publikoagatik diru-sarreren justifikazio-dokumentazioa jaso eta aztertutakoan, dagokion likidazio-agindua emango du Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, eta bigarren ordainketa egin aurretik, bertan kudeaketa-mandatuagatik ordaindu beharreko zenbatekoa zehaztuta. Agindu horretan adieraziko da, kasuan kasu, itzultzea dagokion jada ordainduriko zenbatekoa. Aurkezturiko justifikazio-dokumentazioaren ondorioz telelaguntza-zerbitzua emateagatiko Gipuzkoako Foru Aldundiak jasanarazitako kostuak kudeaketa-mandatuaren gehieneko zenbatekoa gainditu bada, zenbateko gehigarri bat finkatuko da, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez ordainduko dena, unean uneko aurrekontu-erabilgarritasunen kargurako gastua aldez aurretik onartuta.

Laugarrena.– Hitzarmenaren kontrola eta jarraipena.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza izango da kudeaketa-mandatuaren kontrolaz arduratuko den organoa.

Era berean, hitzarmen honen Jarraipen Batzordea eratzen da, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietako sailburuordeak eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen Laguntzako zuzendari nagusiak eta Gizarte Zerbitzuetako Laguntza eta Sarrerako zerbitzuburuak osaturikoa, edo haiek eskuordeturiko pertsonek.

Batzorde horren oinarrizko eginkizunak honako hauek izango dira:

● Zerbitzua nola ematen den aztertzea behar bezala ematen dela bermatzeko.

● Lan-protokoloak ezartzea: dokumentazioa, prozedura, segurtasuna, lankidetza…

● Kasuistika aztertzea.

● Zerbitzuaren eta araudiaren hobekuntza posibleak planteatzea.

● Alderdien arteko eztabaidak ebaztea.

Batzorde hori egokitzat eta beharrezkotzat jotzen duen bakoitzean bilduko da, eta gutxienez sei hilean behingo bilera bat egitea adostuko da, urtearen bigarren hiruhilekoan finkatu beharrekoa, mandatuaren aplikazioaren emaitzak ebaluatzeko eta alderdi bakoitzaren konpromisoei buruz sor daitezkeen interpretazio-aldeak aztertu, proposatu eta, kasuan kasu, ebazteko.

Bosgarrena.– Hitzarmenaren nondik norakoa eta jurisdikzio eskuduna.

Hitzarmen hau administratiboa da, hitzarmena aplikatzeak eragin ditzakeen gorabehera guztiak ebazteari dagokionez, horrek dakartzan ondorioekin.

Hitzarmen hau aplikatzean sortzen diren auziak Administrazioarekiko Auzietarako jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Seigarrena.– Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau honako arrazoi hauetakoren batengatik amaitu ahalko da:

a) Hitzarturiko epea betetzea.

b) Mandatua ezeztatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmenean aurreikusiriko baldintza, betebehar eta konpromisoak bete ez dituelako. Ezeztapena ebazpen arrazoituaren bidez egingo da eta aldez aurretik entzunaldi-izapidea emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

c) Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ez-betetzeek eragindako Gipuzkoako Foru Aldundiaren uko egitea. Uko egitea ebazpen arrazoituaren bidez egingo da eta aldez aurretik entzunaldi-izapidea emango zaio Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari.

d) Adostutako akordioa.

e) Eusko Jaurlaritzak zerbitzua ematea bere gain hartzea.

Hitzarmena b, c, d eta e idatz-zatietan adierazitako arrazoien arteko edozeinengatik azkentzen bada, benetan egindako jarduerak egiaztatuko dira, eta horren inguruan finkatutakoari jarraiki, likidazio ekonomikoa egingo da, hitzarmen honen hirugarren klausulan ezarritakoari jarraiki.

Zazpigarrena.– Indarraldia.

Hitzarmena indarrean egongo d abere sinaduraren egunetik hasita eta dagozkion ondorioak izango ditu 2011ko urtarrilaren 1etik 2011ko ekainaren 30era arte.

Hitzarmena esanbidez luzatu ahalko da gehienez sei hilabeteko aldirako.

Bi aldeak ados daudela adierazteko, hitzarmenaren bi ale izenpetzen dituzte sinatzaileek hitzarmenaren orri guztietan, horietako bakoitza alderdi baten esku geratuz, agiriaren hasieran adierazitako leku eta egunean.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika saileko foru diputatua,
ANDER RODRÍGUEZ LEJARZA.

X. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 23KO 47/2011 EBAZPENARENA

ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ETA EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, BIZTANLERIAREN MUGIMENDU NATURALAREN ETA KAUSAREN ARABERAKO HERIOTZEN ESTATISTIKAK EGITEKO

BILDU DIRA:

Batetik, Jaume García Villar jauna, Estatistikako Institutu Nazionaleko (aurrerantzean, EIN) lehendakaria, erakunde horren izenean eta haren ordezkari gisa, maiatzaren 11ko 508/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatistikako Institutu Nazionalaren Estatutuaren 5.2 artikuluak emandako eskumenak betez.

Bestetik, Francisco Javier Forcada Sainz jauna, Euskal Estatistika Erakundeko (aurrerantzean, Eustat) zuzendari nagusia, beraren izenean eta ordez, Euskal AEren Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak esleitutako eskuduntzak betez, Gobernu Kontseiluak 2011ko urriaren 7an saioan emandako baimena dela bide.

AZALTZEN DUTE:

Biztanleriaren Mugimendu Naturalen Estatistikak (BMN) eta kausaren araberako heriotzenak 2009-2012 Estatistika Plan Nazionalaren eragiketak direla, urriaren 17ko 1663/2008 Errege Dekretu bidez hala onartu baitzen. Beraz, estatistikako funtzio publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legeak ezartzen duen bezala, xede estataletako estatistikak lurralde nazional osoan egiten dira eta Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) ardura dira.

Jaiotzen Estatistika, Ezkontzen Estatistika eta Heriotzen Estatistika Euskal AEri interesatzen zaizkio bere lurralde eremuan urriaren 21eko 4/2010 Legeak onartutako 2010-2012 Euskal Estatistika Planak adierazten duen bezala. Lege horrek ezartzen du Eustat dela horien erakunde arduraduna eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Berariazko Estatistika Organoak hartzen duela parte heriotzen estatistikako informazio biltzeko eta ustiatzeko faseetan.

Euskal AEri eta estatuari biei interesatzen zaizkie estatistika hauek. Horregatik, estatuko eta autonomi erkidegoko jarduna koordinatzea komeni da. Izan ere, estatuak bakarrik du eskumena estatu helburuetarako estatistikak egiteko, Konstituzioaren 149.1.31 artikuluaren arabera, eta Euskal AEk bakarrik du eskumena bere helburu eta eskumenetarako estatistikak egiteko, Euskal Autonomia Estatutuaren 10.37 artikuluaren arabera, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsia.

Gaia biei interesatzen zitzaienez, EINek eta Eustatek lankidetza hitzarmena sinatu zuten Biztanleriaren Mugimendu Naturalen ondoriozko Estatistikak egiteko eta 1996az geroztik dago indarrean (1996ko urtarrilaren 15eko Ebazpena, 1996ko otsailaren 14an argitaratua).

Hitzarmen horren araberako estatistikak egiteko prozedurak aldatu egin dira aldi honetan teknologia berriek izandako garapenaren ondorioz eta hitzarmen horretako klausulen zati handi bat zaharkituta geratu da.

Horregatik guztiagatik, bi erakundeen iritziz egokia da aurreko hori ordezkatuko duen lankidetza hitzarmen berri bat sinatzea, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Lankidetza hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Biztanleriaren Mugimendu Naturalen Estatistikak (heriotzak, ezkontzak eta erditzeak) eta Heriotza-kausaren Araberako Heriotzen Estatistikak egiteko EINen eta Eustaten arteko lankidetza formalizatzea.

Bigarrena.– Alderdien jardunak eta konpromisoak.

1.– EINen jardunak.

EINek Erregistro Zibilekin duen harremana dela eta, horietatik jasotzen duen informazioaren estaldura, kalitatea eta puntualtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartzeaz arduratzen da eta horiek oinarri hartuta fenomeno demografiko bakoitza (heriotzak, ezkontzak eta jaiotzak) grabatzeko fitxategiak sortzen ditu hilero.

Heriotzen, ezkontzen eta erditzeen buletin estatistikoetan dagoen informazioa EINen probintziako ordezkaritzetan grabatzen da karaktere-ezagutza optikoaren (OCR) bidez. Grabazio honekin eta jasotzen diren antzinako buletinen karaktereak grabatuta irudien bankua sortzen da (ImagINE). Banku horretan CMD/BED (Sendagilearen heriotza-ziurtagiriak eta Heriotzen estatistika buletina), BEDJ (parte hartze judizialarekiko heriotzen buletin estatistikoa). BED eta MNP52 (heriotzen antzinako buletin estatistikoak) buletinen irudiak daude, baita ezkontzen buletin estatistikoen, ezkontzen buletin eklesiastikoen eta erditzeen buletin estatistikoenak ere, halaber, dagokion informazio alfazenbakizkoa duen datu-base bat ere badu.

EINeko probintzi ordezkaritzetan egiten da grabatutako informazioaren lehenengo arazketa. Ondoren, EINeko zerbitzu zentraletan grabazio honetan lortutako fitxategiak kontrastatzen dira Erregistro Zibiletan informatizatutako heriotzen, ezkontzen eta erditzeen izenemate fitxategiekin. Datu horiek Erregistroen Zuzendaritza Orokorrak eta Justizia Ministerioaren Notariotzak ematen ditu jasotako buletinak zehatzak direla baliozkotzeaz gain, heriotzen, ezkontzen eta erditzeen buletin estatistikoetako erregistro aldagaiak baliozkotzeko.

Erditzeen buletinean aldagai hauek daude: Liburukia, orrialdea, itzulia, izena eman deneko data, udalerria, izena eman den probintzia, erditzearen data, aitaren eta amaren izena, abizenak, identifikazio agiria eta jaioteguna, jaiotakoaren izena, abizenak eta sexua. Ezkontzen buletinean: liburukia, orrialdea, itzulia, izena eman deneko data, udalerria, izena eman den probintzia, ezkontideen izena, abizenak, identifikazio agiria, sexua eta jaioteguna. Heriotzen buletinean: liburukia, orrialdea, itzulia, izena eman deneko data, udalerria, izena eman den probintzia, izena, abizenak, identifikazio agiria, sexua eta hildakoaren jaioteguna.

Fenomeno demografiko bakoitzaren grabazio fitxategiak baliozkotu ondoren, datuen base nagusira igarotzen dira:

● Heriotzen datu-base nagusira, hor baitaude sendagilearen heriotza-ziurtagirien/heriotzen estatistika buletinen (CMD/BED) informazioarekin grabatutako fitxategiak, baliozkotu gabeko heriotza-kausen literalei dagozkien alorrak barne, parte hartze judizialarekiko heriotzen buletin estatistikoa (BEDJ), heriotzen antzinako buletin estatistikoak (BED eta MNP52 eredua). Denak trantsizio aldi batean hartu daitezkeenak.

● Ezkontzen datu-base nagusia, ezkontzen estatistika buletinei eta eklesiastikoei buruzko informazioa duten grabazio-fitxategiekin.

● Erditzeen datu-base nagusia, erditzeen estatistika buletinei buruzko informazioa duten grabazio-fitxategiekin.

Estatistika bakoitzari dagozkion grabazio fitxategiak erregistratzeko diseinuak hitzarmenaren eranskinean daude.

Diseinu hauek ezingo dira aldatu aldeen adostasunik gabe eta bi aldeek euren lan-sistema egokitzeko behar adinako denborarekin programatuko dira.

2.– EINek Eustatekiko dituen konpromisoak.

EINek Eustaten esku jarriko ditu aurreko datu-baseak web aplikazio seguru baten bidez zentralizatuta, Hitzarmen honetako konpromisoak bete ahal izateko, bigarren klausula honetako 3. puntuan ezarritakoaren arabera. Aplikazio honi esker trukaketa fitxategiak erregistro loteen arabera jaitsi ahal izango dira eta hor dagozkien lanak egindakoan datu-base horietan sartuko dira behin betiko aplikazio bera erabilita. Prozedura honi esker, Eustaten erabiltzen den lan-sistemarekin bateragarria izango da.

M hilabetean zehar erregistro zibiletan erregistratutako fenomenoei dagozkien grabazio fitxategiak erregistro zibil horiek beraiek EINeko probintzi ordezkaritzetara igorri badituzte, hilero hartzeko loteen arabera sailkatuta egongo dira. Lote hauek eskura izango dira m+2 hilabetea amaitu aurretik eta Eustat hilero sartu ahal izango da bere autonomia-erkidegoko lurralde eremuan gertatutako fenomenoei buruzko erregistroetara. Era berean, hortik kanpo gertatutako fenomenoetara sartzeko aukera ere hilero izango du bere autonomia-erkidegoko egoiliarrei buruzko datuei dagokienean. Kasu honetan fitxategi bat deskargatu ahal izango du, baina kontsultarako baino ezingo du erabili fitxategi hori. Datu horietan sartuko dira egoiliarren heriotzak eta ezkontideren bat aurrez egoiliarra den ezkontzak, egoiliarren seme-alaben jaiotzak eta ezkondu ondoren Euskal AEn bizi behar dutenen arteko ezkontzak.

Bestalde, aplikazioari esker Eustatek EINeko irudi-bankuko (ImagINE) irudiak behera kargatu ahal izango ditu, Euskal AEko lurralde eremuan gertatutako fenomenoei buruzko buletinekoak badira. Hauek behera kargatzeko aldizkakotasuna eta epeak ere lehen aipaturiko berdinak izango dira. Lan lote bakoitzari dagozkion irudiak multzoan jaisterik ez dagoenez, EINek enkriptatuta emango dizkio Eustati irudi horiek eta irudiok irakurtzeko behar duen datu-basea ere bai beste edozein euskarritan, aldizkakotasun eta epe berdinetan.

Hitzarmen honen aldi baterako klausula indarrean den bitartean heriotzen, erditzeen eta ezkontzen buletinak igortzen jarraituko dio EINek Eustati.

Amaitzeko, EINek aipaturiko aplikazioaren bidez emango du Heriotzen Datu-base Nagusiko datu alfazenbakizkoak eta dagokion heriotzen buletineko irudiak aldi berean ikusteko aukera, klausula honetako hurrengo puntuan dauden zereginak Eustatek errazago garatu eta burutzeko.

3.– Eustaten jarduerak eta konpromisoak.

a) Heriotzen Buletin Estatistikoari dagokionez.

Aldeen iritziz erabilitako zirkuituak aldatzeko (aldi baterako klausula) baldintzak eman arte eta kodifikazio automatikoko sistema berria eskura egon arte, Eustatek aukeratuko eta kodifikatuko ditu jasotzen dituen CMD/BED, BEDJ eta antzinako BED guztien oinarrizko heriotza-kausak. Era berean, oinarrizko heriotza-kausaren kodea trukatzeko fitxategietan grabatuko du. Fitxategi horiek heriotzen datu-base nagusiarekin ezarriko dira edo datu-baseen heriotzen erregistroan zuzenean.

Kodifikazio automatikoko sistema berria eskura eta baliozkotuta dagoenean, Eustatek hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera jokatuko du.

Eustatek aldagai demografikoen (Erregistro Zibil ez informatizatuetan erregistralak eta ez erregistralak, informatizatutako Erregistro Zibiletan ez erregistralak eta informazio hori egiaz gaizki dagoela adierazten den kasuetan erregistralak) eta aukeratutako heriotza-kausaren artean ezadostasunen bat aurkituz gero, trukaketako fitxategian zuzendu ahal izango du informazioa edo datu-baseko heriotzen erregistroan zuzenean ere bai. Kasu bakoitzean berreskuratutako edo aldatutako informazioaren jatorria eta zergatia dokumentatu beharko dira. Duplikatutako informazioa ere hauteman dezake.

b) Erditzeen buletin estatistikoari dagokionez.

Eustatek aukeratu eta kodetuko du erditzeen estatistika buletinetako heriotzen oinarrizko kausa eta kode hori kargatuko du Erditzeen Datu-base Nagusian datu-baseko erditzeen erregistroan zuzenean edo, dagokionean, erditzeen buletin estatistiko guztietarako Eustatek kudeatuko duen trukaketa fitxategien bidez.

Eustatek behar diren neurriak hartuko ditu osasun zentroetan 180 egun baino gehiagoko haurdunaldiaren ondoren hilda jaiotakoei (fetuaren heriotza berantiarra) eta bizirik jaio arren 24 ordu baino lehen hildakoei buruzko informazioa berreskuratzeko, dagokien Erregistro Zibileko Abortuen Paper-sortan ageri ez badira.

Eustatek berreskuratutako osoko edo zati bateko informazioa erditzeen datu-base nagusian kargatuko du sistema bera erabiliaz.

c) Erregistro Zibiletatik datozen estatistika buletin guztiei dagokienez.

Erregistro Zibila informatizatu gabe badago (edo EINek ez badu Erregistroen Zuzendaritza Orokorreko eta Notariotzaren dagokion fitxategia jaso), Eustatek hildakoen, ezkontzen edo erditzeen izenematearen informazio osoa berreskuratu ahal izango du EINeko fitxategietan horrelako informaziorik ez badago; era berean, gaizki dagoen informazioa aldatu ahal izango du, baita aldagai desberdinetan erantzunak falta zaizkion informazioa ere eta horretarako adostutako egozpen arauak erabili ditzake. Kasu bakoitzean berreskuratutako edo aldatutako informazioaren jatorria eta motibazioa motibatu beharko ditu. Duplikatutako informazioa ere hauteman dezake.

Erregistro Zibila informatizatuta badago, Eustatek gaizki dagoen informazioa baino ezingo du aldatu edo aldagai ez erregistralen erantzun gabeziak bete, adostutako egozpen arauak erabilita ere bai, gogoan hartuta Erregistro Zibilak grabatutako informazioa eta erregistroko liburuetan dagoena bat datorrela, informazio hori okerra dela egiaz adierazten den kasuetan izan ezik. Kasu bakoitzean berreskuratutako edo aldatutako informazioaren jatorria eta motibazioa dokumentatuko dira. Duplikatutako informazioa ere hauteman dezake. Kasu honetan egoitzari dagokion erroldako informazioak lehentasuna du.

d) EINeko datu-base nagusietako informazioa eguneratzea.

Eguneratze lanak egiteko, EINek emandako aplikazioa erabili daiteke edo nork bere tresnak erabil ditzake. Azkeneko kasu honetan eguneratze guztiak sistematik kanpo egin ahal izango dira hitzarmena indarrean den bitartean, EINek emandako aplikazioari esker elkartrukeko fitxategien bidez kargatu eta deskargatu ahal izango baita informazioa. EINeko base nagusian sartu eta 24 hilabetera ere behera kargatu ahal izango dira itxitako fitxategiak.

Lanak egiteko hiru hilabeteko epea egongo da heriotzen, ezkontzen eta erditzeen hileroko fitxategiak heriotzen, ezkontzen eta erditzeen datu-base nagusian eskura daudenetik kontatzen hasita eta irudiak edo, horrelakorik ezean, paperezko buletinak baldin badaude.

Duplikatuak hautemanez gero, informazio osoa berreskuratu edo aurreko paragrafoko hiru hilabete horiek amaitutako ondoren aldatu datuak, fitxategia aplikazioan eguneratzeak eginda kargatu bada, EINeko datu-base nagusian zuzenean egin ahal izango dira aldaketak.

Buletin judizialen heriotza-kausei dagokienez, horiek berreskuratzeko epeak 3 hilabete gainditu ditzake eta EINek web aplikazioan prozedura bat aurreikusiko du literala eta kodea automatikoki kargatzeko eta urte bakoitzean definitutako fitxategiak ixteko finkatzen den denborazko muga ezarriko da.

4.– Elkarrekin egiteko jarduerak.

EINek eta Eustatek adostu eta burutuko dituzte zorroztasun kontrolak, araztekoak eta baliozkotzekoak, baita Erregistro Zibiletatik datozen buletin guztien egozpen arauak ere Euskal AEn izena emandako erditze, heriotza eta ezkontza guztiak lortzeko eta ahalik eta kalitaterik onena bermatzeko.

Hirugarrena.– Oinarrizko heriotza-kausa aukeratzeko eta kodetzeko sistema automatizatua ezartzea

EINek kodifikazio sistema automatikoa ezarriko du Eurostatek sustatutako IRIS tresnan oinarrituta.

Tresna hori erabiltzeko moduan jarritakoan, EINek Eustaten esku jarriko du.

Era berean, EINek koordinatuko du normalizazio arauen eta hiztegien mantentze-lana eta aldiro eguneratuko ditu.

Eustatek bere hiztegiak edota normalizazio arauak erabili ahal izango ditu nahiz gazteleraz nahiz euskaraz idatzitako buletinak tratatu ahal izateko. Horrelakoetan, elkarrekin adostuta ezarriko dituzte kalitate kontrolerako neurriak, EINek kodifikazio automatikoan lortutako emaitzen homogeneotasuna bermatzeko.

Kodifikazio automatiko berria ezarritakoan, Eustatek trukatzeko fitxategietan edo datu-baseko heriotzen erregistroan zuzenean sartuko ditu kausen literalak dagozkien kodeekin eta aukeratutako oinarrizko heriotza-kausaren kodearekin; horretarako EINek emandako aplikazioa edo berak duena erabil dezake. Era berean, Eustatek 2009ko ereduaz aurreko formatuaren BEDetik datozen heriotza-kausen literalak grabatuko ditu.

Kodifikazio automatikoko sistema finkatu ondoren, autonomia-erkidegoko hileroko fitxategia kodifikatzeko bi hilabeteko epea egongo da heriotzen datu-base nagusian fitxategia eskura dagoen egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena.– Behin betiko fitxategiak sortzeko metodologia.

Nazio mailan informazio estatistikoak behar duen homogeneotasuna gordetzeko, EINek eta Eustatek adostuta ezarriko dituzte bat ez etortzeak sailkatzeko, definitzeko eta hauteman eta tratatzeko gutxieneko irizpideak, heriotzen, ezkontzen eta erditzeen fitxategietan osatu gabe dagoen informazioa tratatzeko gutxieneko irizpideak, heriotza-fitxategietako heriotza-kausak kodifikatzeko eta grabatzeko arauak eta falta den informazioa egozteko arauen zerrenda. Era berean, EINek ezarriko du Osasunaren Mundu Erakundearen Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren errebisioak indarrean noiz sartu eta IRIS sistemaren eguneratzeak ere bai.

Euskal AEn gertatutakoekin egingo diren behin betiko fitxategiak Eustatek ekoiztuko ditu bere ohiko lanean eta EIN arduratuko da gainerako autonomia-erkidegoetan bizi diren euskal herritarren gertakariez –2. klausulako 2. atalean ezarritako terminoetan– eta horiek aplikazioaren bidez emango dira, ustiatzeko behin betiko fitxategiak osatu ahal izateko informazio eduki berdinarekin eta anonimizatu gabe.

Prozesu hau gehienez sei hilabeteko desfasearekin egingo da gertakarien erreferentzia urteko itxiera datarekiko. Baina serie historikoen ondorengo argitalpenetan sartu ahal izango dira geroago erregistratutako gertakariak.

Bosgarrena.– Heriotza-kausaren zertifikazioa hobetzeko neurriak.

Eustatek bere lurraldeko profesionalekin eta osasun-zentroekin dagozkion neurriak hartuko ditu, sendagilearen heriotza-ziurtagirietan/heriotzen estatistika buletinetan (CMD/BED) eta BEDJetan ageri ziren heriotza-kausak ongi zehaztuta egon daitezen.

Seigarrena.– Emaitzen hedapena.

Eustaten argitalpen guztietan agertuko da «Iturria: Eustat Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Institutu Nazionalarekin (EIN) elkarlanean». Era berean, Estatistika Institutu Nazionalak argitaratutako emaitzen argitalpenean adieraziko da «Iturria: EIN Euskal Estatistika Erakundearekin (Eustat) elkarlanean Euskal AEn».

Zazpigarrena.– Sekretu estatistikoa.

EINek eta EUSTATek bere gain hartuko dute elkarri emandako informazioaren erantzukizuna, hau da, informazio hori norbanakoen datuak behar bezala babesteko moduan erabiliko dela zainduko dute; are gehiago, eragiketan parte hartzen duten pertsona guztiek sekretu estatistikoa gordeko dute, baina horrez gain, Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legea eta Euskal AEko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea aplikatzearen ondoriozko murrizketak beteko dituzte.

Zortzigarrena.– Finantzazioa.

Hitzarmen honek ez du alderdien arteko kontraprestazio ekonomikorik sortuko.

Bederatzigarrena.– Jarraipenerako Batzorde Teknikoa.

Hitzarmen honen jarraipena egingo duen batzorde teknikoa sortu da, eta honakoek osatuko dute:

a) EINeko ordezkariek.

– Sektorekako Gizarte Estatistiken zuzendariorde nagusia.

– Biztanleria Estatistiken zuzendariorde nagusia.

– Biztanleriaren Berezko Mugimenduaren gaineko Estatistiken ardura duen arloko burua.

b) Eustaten ordezkariek.

– Ekoizpeneko eta azterketa estatistikoko zuzendariordea.

– Estatistika Soziodemografikoen Arloko arduraduna.

– Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna.

Hitzarmen hau interpretatu edo burutzean sor daitezkeen desadostasunak edo eztabaidak Jarraipen Batzorde Teknikoak ebatziko ditu.

Hamargarrena.– Jurisdikzioa.

Lankidetza hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko Kontratuen Legea ezartzetik salbuetsita dago, 4.1.c artikuluaren arabera. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6. eta 8. artikuluek arautzen dute.

Bestalde, aipatu 30/1992 Legeko 8.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen auzi eztabaidagarriak Jarraipen Batzorde Teknikoak ebatzi ezin baditu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, bera arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Hamaikagarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen denean jarriko da abian eta 2011ko abenduaren 31ra arte indarraldian egongo da; urte naturalen arabera luzatu ahal izango da isilbidez, aldeetakoren batek berariaz salatzen ez badu edo erakundeen ebazpen akordiorik ez badago.

Hitzarmena salatuz gero, hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko da eta urte natural baten hasieran desegin beharko da dagokion prozesua amaitu arte hartutako konpromisoak mantenduta.

Klausula iragankorra:

Hasieran EIN eta Eustaten arteko lankidetzako bi zirkuituak erabiliko dira; hau da, EINeko 1996ko urtarrilaren 15eko ebazpenaren arabera azalpenean aipaturiko hitzarmena eta hitzarmen honetan aipaturikoa. Eta bi aldeek hala adostuta, eredu berria erabiliko da soilik bere funtzionamenduaren ebaluazioa egokia denean aldeen iritziz, hitzarmen hau sinatu eta urtebeteko epean gehienez eta erasaten dieten klausuletan, aldiz, kodifikazio automatikoko sistema berria abian jarri eta urtebetera.

Klausula Indargabetzailea:

Hitzarmen hau indarrean jartzean denean 1996ko otsailaren 14ko BOEn (39. zk.) argitaratutako 1996ko urtarrilaren 15eko Ebazpenak argitaratutako aurreko Hitzarmena indargabetu egingo da.

Madril, 2011ko urriaren 13a.

Estatistika Institutu Nazionaleko presidentea,
JAUME GARCIA VILLAR.

Euskal Estatistika Erakundeko (Eustat) zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER FORCADA SAINZ.

ERANSKINA

ERREGISTROAREN DISEINUAK

1) Erditzeen, ezkontzen eta heriotzen estatistikak grabatzeko fitxategien erregistroen diseinuak.

2) Erditzeen, ezkontzen eta heriotzen estatistiken gaineko behin betiko fitxategiak erregistratzeko diseinuak. Gaur egun indarrean dagoen heriotzen estatistiken diseinua erantsi da. Diseinu hori aldatu egingo da Heriotzen Mediku Ziurtagiri/Heriotzen Estatistika Aldizkari berrian jasotzen diren aldagai berriak sartzeko, baina, hala ere, ez da oraingo aldagairik ezabatuko.

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
Fitxategiaren goiburua							
	AÑOR	1	4	4	Hartutako urtea	Zenbakizkoa, 2005 baino handiagoa edo berdina	
	MESR	5	6	2	Hartutako hilabetea	Zenbakizkoa, 01 eta 12 artekoa	
	PROVR	7	8	2	Hartutako probintzia	Zenbakizkoa, 01 eta 52 artekoa, zuria ez dena eta grabatzen ari den probintziako kodearen berdina	
Galdesortaren etiketaren identifikatzailea							
	NBOL	9	16	8	Buletin zk.	Zenbakizkoa, 00000000 eta 99999999 artekoa	
Erregistro zibilean izena eman							
	REGC	17	18	2	Erregistro zibila	Zenbakizkoa, 00 eta 03 artekoa	Informatizatutako EZtan, EZren zenbakia 00 da
	PROI	19	20	2	Izena emandako probintziaren kodea	Zenbakizkoa, 01 eta 52 artekoa, eta grabatzen ari den probintziako kodearen berdina	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	MUNI	21	23	3	Izena emandako udalerriaren kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria ez dira onartzen “000”, “999” eta ““”.	
	DCI	24	24	1	Izena emandako probintzia + izena emandako udalerria kontrol kodea	Zenbakizkoa, 0tik 9ra, ABC metodoaren arabera.	
	DIAI	25	26	2	Izena emandako eguna	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 31 artekoa. Data egutegiarekin bateragarria.	
	MESI	27	28	2	Izena emandako hilabetea	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 12 artekoa	
	ANOI	29	32	4	Izena emandako urtea	Zenbakizkoa edo zuria	
	TOMO1	33	36	4	1. jaiotakoaren liburukia	Zenbakizkoa edo zuria. Zuria ez dena.	
	PAG1	37	39	3	1. jaiotakoaren orrialdea	Zenbakizkoa edo zuria.	
	VUEL1	40	40	1	1. jaiotakoaren itzulia	Alfazenbakizkoa. Zuria,V,B.	
	TOMO2	41	44	4	2. jaiotakoaren liburukia	Zenbakizkoa edo zuria. Zuria ez dena.	
	PAG2	45	47	3	2. jaiotakoaren orrialdea	Zenbakizkoa edo zuria.	
	VUEL2	48	48	1	2. jaiotakoaren itzulia	Alfazenbakizkoa. Zuria,V,B.	
	TOMO3	49	52	4	3. jaiotakoaren liburukia	Zenbakizkoa edo zuria. Zuria ez dena.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	PAG3	53	55	3	3. jaiotakoaren orrialdea	Zenbakizkoa edo zuria.	
	VUEL3	56	56	1	3. jaiotakoaren itzulia	Alfazenbakizkoa. Zuria,V,B.	
	DIAIA	57	58	2	Abortuei paper-sortan izena emandako eguna	Zuria edo zenbakizkoa, 01 eta 31 artekoa. Data egutegiarekin bateragarria.	
	MESIA	59	60	2	Abortuei paper-sortan izena emandako hilabetea	Zuria edo zenbakizkoa, 01 eta 12 artekoa.	
	AÑOIA	61	64	4	Abortuei paper-sortan izena emandako urtea	Zuria edo zenbakizkoa	
Erditzearen datuak							
	DIAPAR	65	66	2	Erditze eguna	Zenbakizkoa, 01 eta 31 artekoa. Ez zuria. Data egutegiarekin bateragarria	
	MESPAR	67	68	2	Erditze hilabetea	Zenbakizkoa. Ez zuria. 01 eta 12 artekoa.	
	ANOPAR	69	72	4	Erditze urtea	Zenbakizkoa. Ez zuria.	
	PROPAR	73	74	2	Erditze probintziaren kodea	Zenbakizkoa, 01 eta 52 artekoa, eta 99 jasota ez dagoenean. Zuria ez dena.	
	MUNPAR	75	77	3	Erditze udalerriaren kodea	Zenbakizkoa, zuria ez dena, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	DCPAR	78	78	1	Erditze probintzia + erditze udalerria kontrol kodea	Zenbakizkoa, 0tik 9ra, ABC metodoaren arabera.	
	LUGARPAR	79	79	1	Erditzea zein tokitan izan zen	Zenbakizkoa edo zuria jasota ez dagoenean. 1= helbide partikularra, 2= osasun zentroa, 3= beste tokiren bat.	
	ASISTIDO	80	80	1	Osasungintzako langileek lagundutako erditzea.	Zenbakizkoa edo zuria jasota ez dagoenean. 1= osasungintzakoek lagundutako erditzea, 2= osasungintzakoen laguntzarik gabeko erditzea	
	MULTIPLI	81	81	1	Zenbat haur jaio ziren bizirik edo hilda?	Zenbakizkoa edo zuria jasota ez dagoenean. 1etik 6ra	
	NORMA	82	82	1	Erditze normala edo gorabeherekikoa	Zenbakizkoa edo zuria. 1= normala; 2= gorabeherekin	
	CESAREA	83	83	1	Zesarea bidezko erditzearen adierazlea	Zenbakizkoa edo zuria. 1= bai; 2= ez	
	INTERSEM	84	84	1	Zenbat aste iraun zuen haurdunaldiak (tarteen arabera)?	Zenbakizkoa, edo zuria lauki guztiak informatu gabe badaude, 1= 37 aste edo gehiago, amaieran; 2= 37 aste baino gutxiago, goiztiarra; 3= ez dago jasota, zuria = laukirik ez informatuta.	
	SEMANAS	85	86	2	Haurdunaldiak iraun zuen aste kopuru zehatza	Zenbakizkoa edo zuria	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
Amaren datuak							
	NOMBREM	87	111	25	Izena	Alfabetikoa. Zuria, jasota ez badago.	
	APELL1M	112	136	25	Lehenengo abizena	Alfabetikoa. Zuria, jasota ez badago.	
	APELL2M	137	161	25	Bigarren abizena	Alfabetikoa. Zuria, jasota ez badago.	
	DIANACM	162	163	2	Eguna – jaioteguna	Zenbakizkoa edo zuria. 01 eta 31 artekoa. Data egutegiarekin bateragarria.	
	MESNACM	164	165	2	Hilabetea – jaioteguna	Zenbakizkoa edo zuria. 01 eta 12 artekoa.	
	AÑONACM	166	169	4	Urtea – jaioteguna	Zenbakizkoa edo zuria	
	TIPODOCM	170	170	1	Nortasun agiri mota	Zenbakizkoa edo zuria. 1= NAN; 2= pasaportea; 3= AIZ	
	NUMDOCM	171	194	24	Nortasun agiri zenbakia	Zenbakizkoa edo zuria + alfabetikoa edo zuria	
	NACIOEM	195	195	1	Amaren nazionalitate espainiarraren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	NACIOXM	196	196	1	Amaren atzerriko nazionalitatearen adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	PAISNACM	197	199	3	Amaren nazionalitatearen herrialdeko kodea	Zenbakizkoa, herrialdeetako hiztegiarekin bateragarria, 108 espainiarra, 999 jasota ez dagoenarentzat eta 555 herrigabeentzat.	
	CUANNACM	200	200	1	Aitak nazionalitatea jaiotakoan edo ondoren hartu zuenaren adierazlea	Zenbakizkoa edo zuria. 1= jaiotzetik; 2= ondoren	
	NACIDAEM	201	201	1	Espainian jaiotako amaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PROMA	202	203	2	Ama jaio zen probintziaren kodea	Zenbakizkoa, 01 eta 52 eta 99 jasota ez dagoenean.	
	MUNMA	204	206	3	Ama jaio zen udalerriaren kodea + DC	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	DCNACM	207	207	1	Ama jaio zen probintziaren kontrol digitua + ama jaio zen udalerria	Zuria edo zenbakizkoa, 0tik 9ra, ABC metodoaren arabera.	
	NACIDAXM	208	208	1	Atzerrian jaiotako amaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PAISNXM	209	211	3	Atzerriko jaioterriaren adierazlea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	RESIEM	212	212	1	Espainian bizi den amaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	PROREM	213	214	2	Ama bizi zen probintziaren kodea	Zenbakizkoa, 01 eta 52 eta 99 jasota ez dagoenean.	
	MUNREM	215	217	3	Ama bizi den udalerriaren kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	DCRECM	218	218	1	Ama bizi den probintziaren kontrol digitua + ama bizi den udalerria	Zuria edo zenbakizkoa, 0tik 9ra, ABC metodoaren arabera.	
	RESXM	219	219	1	Atzerrian bizi den amaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PAISRXM	220	222	3	Ama atzerrian bizi den herrialdearen kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	TVIAM	223	227	5	Amaren helbidearen bide motaren literala	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	NTVIAM	228	232	5	Amaren bide motaren kodea edo erroldaren arabera normalizatutako literala	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	CODPOSTM	233	237	5	Amaren Espainiako egoitzaren posta kodearen literala	Zenbakizkoa edo zuria	
	NVIAM	238	293	56	Amaren helbidearen bidearen izena	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	CODVIAM	294	298	5	Amaren bidearen kodea	Zenbakizkoa edo zuria	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	NPOLIM	299	302	4	Amaren helbideko kalearen zk.	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	CPOLIM	303	303	1	Amaren helbideko zenbakiaren kalifikatzailea	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	BLOQUEM	304	305	2	Amaren helbidearen blokea	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	PORTALM	306	307	2	Amaren helbidearen ataria	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	ESCAM	308	309	2	Amaren helbidearen eskailera	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	PLTAM	310	312	3	Amaren helbidearen solairua	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	PUERM	313	316	4	Amaren helbidearen atea	Alfazenbakizkoa edo zuria.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	ESTUDIOM	317	318	2	Amak osatutako ikasketarik handienen kodea (01etik 10era)	Zenbakizkoa edo zuria. 01= ez daki irakurtzen edo idazten; 02= badaki irakurtzen eta idazten, baina 5 urtez baino gutxiagoz joan zen eskolara; 03= 5 urtez baino gehiagoz joan zen eskolara baina OHO, DBH edo Oinarrizko Batxilergoa osatu gabe; 04= OHO, DBH edo Oinarrizko Batxilergoa osoa (Eskola-graduatua); 05= Goi Batxilergoa, BBB, Logseko Batxilergoa, UBI, Unib. aurrekoa; 06= LH, erdi mailako LH, industri ofizialtza edo parekoa; 07= LHII, goi mailako LH, industri maisutza edo parekoa; 08= Diplomatura, Arkitektura edo Ingeniaritza Teknikoa; 3 urte gaindituta Lizentziaturan, Ingeniaritzan edo Arkitekturan; 09= Arkitektura, Ingeniaritza, Lizentziatura edo parekoa; 10= Doktoregoa; 00 edo zuriz= ez dago jasota.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	CAUTOM	319	320	2	Amaren lanbide, zeregin edo okupazio nagusiari berak emandako kodea (01etik 13ra)	Zenbakizkoa edo zuria. 01= indar armatuak; 02= enpresetako eta herri administrazioetako zuzendaritza; 03= teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak; 04= laguntzeko teknikariak eta profesionalak; 05= administratibo motako langileak; 06= jatetxe-arloko zerbitzuetako langileak; 07= nekazaritza eta arrantzako langile kualifikatuak; 08= artisauak eta industria manufakturetako langile kualifikatuak, eraikuntzakoak eta meatzaritzakoak, instalazioetako eta makineriako langileak izan ezik; 09= instalazioetako eta makinerietako operadoreak eta muntatzaileak; 10= langile ez kualifikatuak; 11= ikasleak; 12= etxeko lanak egiten edo partekatzen dituztenak; 13= erretiratuak/errentadunak; 00 edo zuriz = ez dago jasota edo sailkatu ezin daitezkeenak.	
	PROFM	321	358	38	Amaren lanbidearen deskripzio zehatzaren katea	Alfabetikoa edo zuria	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	CPROFM	359	360	2	Amaren lanbide, zeregin edo okupazio nagusiari emandako kodea berraztertuta (01etik 13ra)	Aurrez auto esleitutako kodearen berdina	
	ECIVM	361	361	1	Amaren egoera zibila (1etik 4ra) ezkonduta, ezkongabe, bananduta/dibortziatuta, alarguna	Zenbakizkoa edo zuria. 1= ezkondua; 2= ezkongabea; 3= bananduta/dibortziatua; 4= alarguna.	
	CASPNM	362	362	1	Bere lehenengo ezkontza ote denari buruzko adierazleak	Zenbakizkoa edo zuria. 1= bai; 2= ez	
	DIAMAT	363	364	2	Egungo ezkontzaren eguna	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 31 artekoa. Data egutegiarekin bateragarria.	
	MESMAT	365	366	2	Egungo ezkontzaren hilabetea	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 12 artekoa	
	AÑOMAT	367	370	4	Egungo ezkontzaren urtea	Zenbakizkoa edo zuria	
	PHECHO	371	371	1	Izatezko bikotean bizi denaren adierazlea (1,2)	Zenbakizkoa edo zuria: 1= Bai; 2= Ez	
	ESTABLE1	372	372	1	Lehenengo harreman egonkorra denaren adierazlea (1,2)	Zenbakizkoa edo zuria: 1= bai; 2= ez	
	DIAEST1	373	374	2	Egungo harreman egonkorraren eguna	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 31 artekoa. Data egutegiarekin bateragarria.	
	MESEST1	375	376	2	Egungo harreman egonkorraren hilabetea	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 12 artekoa	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	AÑOEST1	377	380	4	Egungo harreman egonkorraren urtea	Zenbakizkoa edo zuria	
	NUMH	381	382	2	Seme-alaba kopurua erditze hau barne	Zenbakizkoa edo zuria	
	IVOANT	383	383	1	Aurreko erditzeetan seme-alabarik bizirik jaio al den (1,2)	Zenbakizkoa edo zuria: 1= bai; 2= ez	
	NUMHV	384	385	2	Aurreko erditzeetan bizirik jaiotako seme-alaba kopurua	Zenbakizkoa edo zuria	
	DIAHAN	386	387	2	Aurreko seme-alaba jaio zen eguna	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 31 artekoa. Data egutegiarekin bateragarria.	
	MESHAN	388	389	2	Aurreko seme-alaba jaio zen hilabetea	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 12 artekoa	
	AÑOHAN	390	393	4	Aurreko seme-alaba jaio zen urtea	Zenbakizkoa edo zuria	
	HIJOANTE	394	394	1	Espainian jaiotako aurreko seme-alabaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PROHANTE	395	396	2	Aurreko seme-alaba jaio zen probintziaren kodea	Zenbakizkoa, 01 eta 52 eta 99 jasota ez dagoenean.	
	MUNHANTE	397	399	3	Aurreko seme-alaba jaio zen udalerriaren kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	DCHANTE	400	400	1	Aurreko seme-alaba jaio zen probintziaren kontrol kodea+aurreko seme-alaba jaio zen udalerria	Zuria edo zenbakizkoa, 0tik 9ra, ABC metodoaren arabera.	
	HIJOANTX	401	401	1	Atzerrian jaiotako aurreko seme-alabaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PAISHANTX	402	404	3	Atzerrian jaiotako aurreko seme-alabaren herrialdearen kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	NACIOEHA	405	405	1	Aurreko seme-alabaren espainiar nazionalitatearen adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	NACIOXHA	406	406	1	Aurreko seme-alabaren atzerriko nazionalitatearen adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PAISNAHA	407	409	3	Aurreko seme-alabaren nazionalitateko herrialdearen kodea	Zenbakizkoa, herrialdeetako hiztegiarekin bateragarria, 108 espainiarra, 999 jasota ez dagoenarentzat eta 555 herrigabeentzat.	
Aitaren datuak							
	NOMBREP	410	434	25	Izena	Alfabetikoa. Zuria, jasota ez badago.	
	APELL1P	435	459	25	Lehenengo abizena	Alfabetikoa. Zuria, jasota ez badago.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	APELL2P	460	484	25	Bigarren abizena	Alfabetikoa. Zuria, jasota ez badago.	
	DIANACP	485	486	2	Eguna – jaioteguna	Zenbakizkoa edo zuria, 01 eta 31 artekoa. Data egutegiarekin bateragarria.	
	MESNACP	487	488	2	Hilabetea – jaioteguna	Zenbakizkoa edo zuria. 01 eta 12 artekoa.	
	AÑONACP	489	492	4	Urtea – jaioteguna	Zenbakizkoa edo zuria	
	TIPODOCP	493	493	1	Nortasun agiri mota	Zenbakizkoa edo zuria. 1= NAN; 2= pasaportea; 3= AIZ	
	NUMDOCP	494	517	24	Nortasun agiri zenbakia	Zenbakizkoa edo zuria + alfabetikoa edo zuria	
	NACIOEP	518	518	1	Aitaren nazionalitate espainiarraren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	NACIOXP	519	519	1	Aitaren atzerriko nazionalitatearen adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PAISNACP	520	522	3	Aitaren nazionalitateko herrialdearen kodea	Zenbakizkoa, herrialdeetako hiztegiarekin bateragarria, 108 espainiarra, 999 jasota ez dagoenarentzat eta 555 herrigabeentzat.	
	CUANNACP	523	523	1	Aitak nazionalitatea jaiotakoan edo ondoren hartu zuenaren adierazlea	Zenbakizkoa edo zuria. 1= jaiotzetik; 2= ondoren	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	NACIDAEP	524	524	1	Espainian jaiotako aitaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PROPA	525	526	2	Aita jaio zen probintziaren kodea	Zenbakizkoa, 01 eta 52 eta 99 jasota ez dagoenean.	
	MUNPA	527	529	3	Aita jaio zen udalerriaren kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	DCNACP	530	530	1	Aita jaio zen probintziaren kontrol digitua + aita jaio zen udalerria	Zuria edo zenbakizkoa, 0tik 9ra, ABC metodoaren arabera.	
	NACIDOXP	531	531	1	Atzerrian jaiotako aitaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PAISNXP	532	534	3	Aitaren atzerriko jaioterriaren kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	DONDEP	535	535	1	Non bizi da aita	Zenbakizkoa edo zuria. 1= amaren helbide bera; 2= amarena ez den helbidea.	
	RESEP	536	536	1	Espainian bizi den aitaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PROREP	537	538	2	Aita bizi den probintziaren kodea	Zenbakizkoa, 01 eta 52 eta 99 jasota ez dagoenean.	
	MUNREP	539	541	3	Aita bizi den udalerriaren kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	DCRECP	542	542	1	Aita bizi den probintziaren kontrol digitua + aita bizi den udalerria	Zuria edo zenbakizkoa, 0tik 9ra, ABC metodoaren arabera.	
	RESXP	543	543	1	Atzerrian bizi den aitaren adierazlea	0= informatu gabe; 1= informatuta	
	PAISRXP	544	546	3	Atzerrian bizi den aitaren herrialdeko kodea	Zenbakizkoa, hiztegi geografikoarekin bateragarria eta 999 jasota ez dagoenean.	
	TVIAP	547	551	5	Aitaren helbidearen bide motaren literala	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	NTVIAP	552	556	5	Aitaren bide motaren kodea edo erroldaren arabera normalizatutako literala	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	CODPOSTP	557	561	5	Aitaren Espainiako egoitzaren posta kodearen literala	Zenbakizkoa edo zuria	
	NVIAP	562	617	56	Aitaren helbidearen bidearen izena	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	CODVIAP	618	622	5	Aitaren bidearen kodea	Zenbakizkoa edo zuria	
	NPOLIP	623	626	4	Aitaren helbidearen kalearen zk.	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	CPOLIP	627	627	1	Aitaren helbidearen zenbakiaren kalifikatzailea	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	BLOQUEP	628	629	2	Aitaren helbidearen blokea	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	PORTALP	630	631	2	Aitaren helbidearen ataria	Alfazenbakizkoa edo zuria.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	ESCAP	632	633	2	Aitaren helbidearen eskailera	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	PLTAP	634	636	3	Aitaren helbidearen solairua	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	PUERP	637	640	4	Aitaren helbidearen atea	Alfazenbakizkoa edo zuria.	
	ESTUDIOP	641	642	2	Aitak osatutako ikasketarik handienen kodea (01etik 10era)	Zenbakizkoa edo zuria. 01= ez daki irakurtzen edo idazten; 02= badaki irakurtzen eta idazten, baina 5 urtez baino gutxiagoz joan zen eskolara; 03= 5 urtez baino gehiagoz joan zen eskolara baina OHO, DBH edo Oinarrizko Batxilergoa osatu gabe; 04= OHO, DBH edo Oinarrizko Batxilergoa osoa (Eskola-graduatua); 05= Goi Batxilergoa, BBB, Logseko Batxilergoa, UBI, Unib. aurrekoa; 06= LH, erdi mailako LH, industri ofizialtza edo parekoa; 07= LHII, goi mailako LH, industri maisutza edo parekoa; 08= Diplomatura, Arkitektura edo Ingeniaritza Teknikoa; 3 urte gaindituta Lizentziaturan, Ingeniaritzan edo Arkitekturan; 09= Arkitektura, Ingeniaritza, Lizentziatura edo parekoa; 10= Doktoregoa ; 00 edo zuriz= ez dago jasota.	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	CAUTOP	643	644	2	Aitaren lanbide, zeregin edo okupazio nagusiari auto esleitutako kodea (01etik 13ra)	Zenbakizkoa edo zuria. 01= indar armatuak; 02= enpresetako eta herri administrazioetako zuzendaritza; 03= teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak; 04= laguntzeko teknikariak eta profesionalak; 05= administratibo motako langileak; 06= jatetxe-arloko zerbitzuetako langileak; 07= nekazaritza eta arrantzako langile kualifikatuak; 08= artisauak eta industria manufakturetako langile kualifikatuak, eraikuntzakoak eta meatzaritzakoak, instalazioetako eta makineriako langileak izan ezik; 09= instalazioetako eta makinerietako operadoreak eta muntatzaileak; 10= langile ez kualifikatuak; 11= ikasleak; 12= etxeko lanak egiten edo partekatzen dituztenak; 13= erretiratuak/errentadunak; 00 edo zuriz = ez dago jasota edo sailkatu ezin daitezkeenak.	
	PROFP	645	682	38	Aitaren lanbidearen deskripzio zehatzaren katea	Alfabetikoa edo zuria	

ERANSKINA

Erditzeen Buletin Berriaren Grabazio Fitxategiaren Erregistro Diseinua Autonomia Erkidegoentzat, 2007. urtetik aurrera

Erregistroaren luzera: 1.784 kokapen

		Hasierako kok.	Amaierako kok.	Luzera		Alor mota – Baliozko balioak	Oharrak
	CPROFP	683	684	2	Aitaren lanbide, zeregin edo okupazio nagusiaren kodea gainbegiratuta (01etik 13ra)	Auto esleitutako kodearen berdina	
1. jaiotakoaren datuak							
	NOMBN1	685	709	25	1. jaiotakoaren izena	Alfabetikoa edo zuria	
